izango den ibilbideak aukera emango dio bertaratzen den orori bakearen inguruko hausnarraldia egiteko. Bestetik, ibilbidearen inguruan antolatutako topaketa, ekitaldi, proiektio eta abarrek indartu egingo dute oinezkoen gogoeta.

La Milla de la paz es un recorrido de un kilómetro y medio que adopta el Urumea como metáfora, el río como una frontera natural y los puentes como elementos contruidos para superar esa división. Consistirá en un paseo para reflexionar y participar en torno a la paz y su reverso: la guerra, la violencia y los conflictos armados.

El recorrido estará dividido en tres zonas: *la plaza de las naciones*, situada en la zona de la estación de Renfe, donde se trabajará la idea de conectar con otros conflictos vivos; *La paz, un juego de niños*, que estará situada en el parque Cristina Enea; y el *Laboratorio de la paz*, que se ubicará en Loiola.

La milla de la paz tendrá dos partes. Por un lado, el recorrido abierto durante el día permitirá a aquellos que se acerquen reflexionar en un paseo en torno a la paz. Por otro lado, las proyecciones, actuaciones, encuentros y demás actividades organizados en torno al recorrido enriquecerán las reflexiones de los caminantes.



12 EKAINA JUNIO - 30 URRIA OCTUBRE

BIZITZA VIDA

ENBAXADA EMBAJADA

Biziz

Europako bizitasunaren bitakora
Bitácora de la vitalidad de Europa

IBILBIDEA / KIROL JARDUERA / WEBGUNEA / FESTA


RECORRIDO / ACTIVIDAD DEPORTIVA / PÁGINA WEB / FIESTA

biziz.dss2016.eu

#Biziz

BIDAIAK / VIAJES

- 1 LAS PALMAS - DONOSTIA: 2647,4 KM
- 2 ATENAS - DONOSTIA: 2366,4 KM
- 3 KOPENHAGE - DONOSTIA: 2616,2 KM
- 4 KONSTANTZA - DONOSTIA: 2542 KM
- 5 WROCLAW - DONOSTIA: 3017,5 KM



Biziz Bizitzaren itsasargiaren enbaxada anitza da: bizikletek bultzatutako bost ibilgailu-konboik osatzen dute, eta Europa ibiliko dute, beste horrenbeste ibilbide tematikotan. Misiok kontinenteko bizitza-estiloen aniztasuna erregistratzeko diseinatu dira, eta 2016 urtearen erdialdean ekingo diote bidaiari, Europako zenbait hiritatik: Las Palmas, Atenas, Kopenhage, Konstantza eta Wrocław. Hurrenez hurren, hirigintzari, gastronomia eta nekazaritzari, bioaniztasunari, komunitateari, eta gorputzari eta osasunari eskainitako ibilbideen abiapuntuak.

«Bizikletek bultzatutako bost espedizioek Europako bizimoduaren aniztasuna azalduko dute»

Bost komunikatzaile hautatuko dira, deialdi ireki baten bidez, ibilbide bakoitzean, egonaldi ibiltari gisa, eskura dituzten kazetaritza-baliabide guztiekin espedizio bakoitzak aurkitzen dituen bizimodu eta ohituren berri eman dezaten. Plataforma digitalen bidez, bost bitakora-kaier multimedia horien jarraipena egin ahal izango da.

Bost «bizikletek» egingo dituzten bideak diseinatzean, aintzat hartu da ibilbide bakoitzaren gaiet lotutako hiriez gain, bestelakoak ere bisitatzeko: Donostiarekin

senidetutako herriak, 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko Espainiako hiri hautagaiak eta mugikortasunaren eta iraunkortasunaren esparruetan eredugarritzat jotako beste batzuk.

Abentura bost espedizioak Donostiara iristen direnean amaituko da, hori baita bidaien helmuga, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat eginez. Bizitzaren itsasargiak sustatzen dituen balioak aldarrikatzeko jai batekin egingo zaie harrera.

Biziz es la embajada múltiple del Faro de la vida, compuesta por cinco convoys de vehículos impulsados por bicicletas que recorrerán Europa en otras tantas rutas temáticas. Las misiones están diseñadas para registrar la diversidad de estilos de vida del continente, y emprenderán su viaje a mediados de 2016 desde distintas ciudades europeas: Las Palmas, Atenas, Copenhagen, Constanza y Wrocław serán punto de partida de sendos recorridos consagrados, respectivamente, al urbanismo, a la gastronomía y la agricultura, la biodiversidad, la comunidad, y el cuerpo y la salud.

Cinco comunicadores serán seleccionados en convocatoria abierta para que a lo largo de cada ruta, y a

modo de residencia itinerante, elaboren con todos los recursos periodísticos a su alcance el relato de los diferentes modos de vida y costumbres que cada expedición encuentre a su paso. Estos cinco cuadernos de bitácora multimedia podrán seguirse mediante plataformas digitales.

«Cinco expediciones impulsadas por bicicletas descubrirán la diversidad de estilos de vida en Europa»

Los itinerarios que recorrerán las cinco «bicicletas» se han diseñado de tal manera que, además de las ciudades vinculadas a la temática de cada ruta, visitarán también localidades hermanadas con San Sebastián, ciudades españolas que fueron candidatas a Capital Europea de la Cultura 2016, así como otras que se consideran referentes en el ámbito de la movilidad y la sostenibilidad.

La aventura concluirá cuando las cinco expediciones lleguen a San Sebastián, destino final de sus viajes, coincidiendo con la Semana Europea de la Movilidad. Serán recibidas con una fiesta para celebrar los valores que promueve el Faro de la vida.



Ander Izagirre
KAZETARIA
PERIODISTA

Besteengana
hurbiltzeko gogoia

Bizikletak eman zigun mundura geure kabuz ateratzeko aukera. 16 urterekin abiatu ginen, Donostiatik bertatik, eta, bizitzan lehenengo aldiz, ez genekien non egin behar genuen lo. Hamabi ordu geroago, Briviescan jarri genuen kanpin-denda. Han sentitu ginen bidaiari lehenengo aldiz, laguna eta biok. Ibilbideak luzatzen joan ziren hurrengo urteetan. Gidatzeko baimenik gabe, Europara ere ateratzeko ahalmena genuen.

Donostia 2016ren *Biziz* enbaxadak gure lehen bidai txirrindularien irakaspenak ekarri dizkit gogora: arintasuna, sinpletasuna, askatasuna, besteengana hurbiltzeko gogoia, jakin-mina. Pedalei eraginez, mundura berriz ateratzeko irrika piztu dit.

El deseo de acercarse a los demás

La bicicleta nos otorgó la oportunidad de salir al mundo por nosotros mismos. Salimos con 16 años de San Sebastián y, por primera vez en la vida, no sabíamos dónde íbamos a dormir. Al cabo de doce horas, montamos la tienda de campaña en Briviesca. Allí, mi acompañante y yo nos sentimos viajeros por primera vez. Los caminos se alargaron durante las semanas siguientes. Sin carné de conducir, también intentamos salir a Europa.

La embajada *Biziz* de San Sebastián 2016 me ha recordado lo aprendido en nuestro primer viaje en bicicleta: la levedad, la sencillez, la libertad, las ganas de acercarnos a los demás, las ganas de saber. Ha encendido en mí el deseo de volver a salir al mundo a pedaladas.

3 EKAINA JUNIO - 12 EKAINA JUNIO

AHOTSAK VOCES

Zapart!

Irudi-istoriotxoaren kalea
Rue de la historieta

JAIALDIA FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERAGILEAK AGENTES
XABIROJIALEAK KULTUR ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES
KOMIKIGUNEA / KOLDO
MITXELENA, SAN BARTOLOME
MUINOA S.A., PAPELERIA TAMAYO

zapart.dss2016.eu

#Zapart

ADIERAZPENA / HERRITARREN
SORMENA / KOMIKIA / SORMEN
KOLEKTIBOA
EXPRESIÓN / CREATIVIDAD
CIUDADANA / CÓMIC /
CREATIVIDAD COLECTIVA



Alex Orbe - 2015 - www.alexorbe.carbonmade.com

Ekaineko bigarren asteburuan Errege Katolikoak kale-ingurua komikiaren gainean marraztutako jardueraz beteriko bineta erraldoi bihurtuko da.

Bederatzigarren artea bultzatzeko, sortzaileen arteko sareak indartzeko eta marrazkilarien eta jendearen arteko interakzioa errazteko sortu da *Zapart!*. Proiektu berritzailea da, gauzak egiteko eta kultura ulertzeko moduan aldaketa bilatzen duena. Sortzaileak ideien garapenari, antolakuntzari eta beren lanaren garrantzia ikusgarri egiteko ekintzen ekoizpenari lotuago egotea du xede eta ikusleen partaidetza erabakigarria izango da, gainera.

Proiektua eremu publiko eta pribatueta gauzatuko da, eta ibilbide ezaguneko marrazkilariak bilduko dira haietan: Arthur Suydam, Mihai Tymoshenko, Manel Craneo, Pepe Farruco, Alex Orbe, Ainara Azpiazu - Axi edo Asisko Urmeneta, esate baterako. Hainbat gaitako eta formatutako erakusketak, zuzeneko sorkuntza, hitzaldiak, ibilbide gidatuak, kontzertuak, ipuin-kontalariak, tailerrak, truke-azoka bat eta Antton Olariagak diseinatutako mural handi bat bilduko dira jaialdian besteak beste.

El contorno de la calle Reyes Católicos se convertirá durante el segundo fin de semana de junio en una gran viñeta repleta de actividades esbozadas en torno al cómic.

Con los propósitos de impulsar el noveno arte, reforzar las redes entre creadores y facilitar la interacción entre dibujantes y público en general, *Zapart!* es un proyecto innovador que busca un cambio en la forma de hacer las cosas y de entender la cultura, en la que los creadores estén más ligados al desarrollo de las ideas, a la organización y a la producción de acciones que visibilicen la importancia de su trabajo y en la que la participación del público tenga un papel determinante.

El proyecto implica a espacios públicos y privados, reúne a dibujantes de reconocida trayectoria como Arthur Suydam, Mihai Tymoshenko, Manel Craneo, Pepe Farruco, Alex Orbe, Ainara Azpiazu - Axi o Asisko Urmeneta y en él convergen exposiciones de diversas temáticas y formatos, creación en vivo, conferencias, itinerarios guiados, conciertos, cuentacuentos, talleres, un mercado de trueque y la realización de un gran mural a cargo de Antton Olariaga que quedará como legado en la ciudad.

EKAINA JUNIO

AHOTSAK VOCES

HAZITEGIAK

Joan-etorrian De ida y vuelta

Proiektuak eta artistak aberasteko egonaldiak
Residencias para enriquecer proyectos y artistas

EGONALDIA / MEDIAZIOA

RESIDENCIA / MEDIACIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
WROCLAW

ERAGILEAK AGENTES
DONOSTIA KULTURA. ETXEPARE
EUSKAL INSTITUTUA. WROCLAW 2016

joanetorrian.dss2016.eu
deidayvuelta.dss2016.eu

#JoanEtorrian #DeldaYVuelta

HEZKUNTZA / DANTZA / ARTE PLASTIKOAK
/ SOINU ARTEA / MEDIA ART /
EDUCACIÓN / DANZA / ARTES PLÁSTICAS/
ARTE SONORO / MEDIA ART

Donostia eta Wrocław, hirugarren urtez, artisten sorkuntza-trukearen zubia zeharkatzen ari dira. Ekimen honen bidez, deialdi batean hautatutako hiru euskal artistek beren proiektuak gauzatzeko dituzte Poloniako hiri horretan; artean, Wrocławetik iritsitako beste hainbeste artista jasoko ditu Donostiak, helburu berberarekin. Egonaldi horietan, hiriko pertsona eta kolektiboekin egindako askotariko topaketa-jarduerak proiektu artistikoak aberastuko dituzte. Truke-programa da, gure artistak nazioartekotzen laguntzen duena. Donostia Kulturarekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin batera sortutako proiektua da: lankidetzara hori ezinbestekoa baita halako praktikak normalizatzeko.

San Sebastián y Wrocław transitan, por tercer año, el puente creativo del intercambio de artistas. A través de esta iniciativa, tres artistas vascos seleccionados a través de convocatoria realizarán sus proyectos en la ciudad polaca, al tiempo que otros tantos artistas provenientes de Wrocław serán acogidos en San Sebastián con idéntico fin. A lo largo de estas residencias, diferentes actividades de encuentro con personas y colectivos de la ciudad enriquecen los procesos artísticos. Un programa de intercambios que contribuye a la internacionalización de nuestros artistas, desarrollado junto con Donostia Kultura y el Instituto Etxepare, una colaboración imprescindible a la hora de normalizar estas prácticas.



21 EKAINA - 24 UZTAILA
JUNIO JULIO ✓ AHOTSAK
VOCES

Uda-gau bateko ametsa Sueño de una noche de verano

Maitasunak basoa ikusaraz diezazula
Que el amor te haga ver el bosque

ANTZEZLANA REPRESENTACIÓN

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
CRISTINA ENEA PARKEA

🕒 ORDUA HORA
20:30 - 23:30

🎫 SARRERAREKIN
CON ENTRADA

👤 ERAGILEAK AGENTES
TANTTAKA TEATROA, TAE, EASO
ABESBATZA, BASQUE CULINARY
CENTER

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES
CRISTINA ENEA FUNDAZIOA,
EUSKADIKO LIBURU GANBARA,
TABAKALERA

BABESLEA PATROCINADOR
EDP

ZUZENDARIAK DIRECCIÓN
FERNANDO BERNUÉS E IÑAKI
RIKARTE

EGOKITZAPENA ADAPTACIÓN
PATXO TELLERIA

MUSIKA MÚSICA
IÑAKI SALVADOR

ESZENOGRAFIA ESCENOGRAFÍA
IKERNE GIMENEZ

KOREOGRAFIA COREOGRAFÍA
JON MAYA

ARGITZATZEA ILUMINACIÓN
XABIER LOZANO Y DAVID ALCORTA

SOINUA SONIDO
MIKEL F. KRUTZIAGA

GASTRODISEINUA GASTRODISEÑO
LUISA LÓPEZ TELLERIA

🌐 udagaubatekoametsa.dss2016.eu
suenonocheverano.dss2016.eu

#UdaGauBatekoAmetsa
#SueñoNocheVerano

📌 ARTE ESZENIKOAK / LITERATURA /
MUSIKA / ANTZERKIA /
ARTES ESCÉNICAS / LITERATURA /
MÚSICA / TEATRO

IRAUNKORTASUNA ILUSIOA ETORKIZUNA
SOSTENIBILIDAD ILUSIÓN FUTURO

Balio berak. **Energia bera**
Compartimos Valores. **Compartimos Energía**



www.edpenergia.es



Laura Miner - Donostia - 2015

Maitemintzearen sentrazioa eta gauzak lehen aldiz egitearen zirrara antzekoak dira. Maitemintzeak badu arao magikotik, William Shakespearek sortutako maitasun, engainu, iratxo eta miragarrien istorio honetan ibiltzeak bezalaxe. Espazio naturalen erabilera oinarri hartuta, ekoizpen eszeniko berritzailea eta iradokitzailea egingo da Donostian. Cristina Enea parkeak bere sorginkeria areagotuko du, eta irudimenaren eta magiaren feudo bihurtuko da, aztikeriaren gaueko erreinu, alegia. Bertan, literaturak, gastronomiak, musikak, antzerkiak eta dantza garaikideak bat egingo dute, gauero-gauero 250 pertsona xarmatzeko.

Iluntzean, Hermiaren eta Demetrioren ezkontzara gonbidatuta etorriko dira ikus-entzuleak parkera, eta maitasun-ataketan inspiratutako afariaz gozatuko dute. Iluntasunak basoa hartzen duenean, ikus-entzuleak gau kitzikagarriaren eta magikoaren sekretu eta misterioen lekuko pribilegiatu izango dira.

Eszenaratze deigarri horren bidez, Donostiak antzerkigile ingelesa omenduko du, haren heriotzaren 400. urteurrenean. Antzezle, dantzari, sukaldari, abeslari eta musikarien ohi ez bezalako bilgunea izango da, obra bete-betea, gure egunerokotasuneko ordu batzuk eraldatzea xede duena, funtzioa bukatuta, uda-gau izugarri baten distira gorde dezan erreallitateak.

La sensación de enamorarse se parece a la emoción de hacer cosas por primera vez. Tiene algo de conjuro mágico, como lo tiene recorrer esta historia de amores, engaños, duendes y hadas, creada por William Shakespeare. San Sebastián acogerá una novedosa y sugerente producción escénica fundamentada en la utilización de espacios naturales. El parque de Cristina Enea intensificará su hechizo para convertirse en el feudo de la imaginación y la magia, un reino nocturno de encantamiento, donde la literatura,

la gastronomía, la música, el teatro y la danza contemporánea se aliarán para seducir cada noche a 250 personas.

Al atardecer, las y los espectadores accederán al parque en calidad de invitados a la boda de Hermia y Demetrio y disfrutarán de una cena inspirada en los trances del amor. Cuando la oscuridad comience a adueñarse del bosque, las y los espectadores serán testigos privilegiados de los secretos y misterios de esa noche excitante y mágica.

Con esta evocadora puesta en escena, San Sebastián homenajeará al dramaturgo inglés en el 400 aniversario de su muerte. Una reunión insólita de actores, bailarines, cocineros, cantantes y músicos, una obra total que aspira a transformar durante unas horas la cotidianidad de nuestras vidas para que al finalizar la función la realidad preserve aún parte de los destellos de una increíble noche de verano...

Hitzargiak

Elkar argitzen duten hizkuntzak
Lenguas que se dan luz entre sí

TOPAKETA ENCUESTRO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERAGILEAK AGENTES
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

hitzargiak.dss2016.eu

#Hitzargiak

HIZKUNTZAK / ANIZTASUNA
LENGUAS / DIVERSIDAD

Beren hizkuntzan bizitzeko oztopoeikin topo egitean irudimena garatu eta mekanismoak asmatu behar izan dituzten hamarnaka hizkuntza komunitate daude Europan. Gizarte-mugimenduak, kooperatiba txikiak, hedabideak, kultur elkarteak, hezkuntza-zentroak, erakunde publikoak eta abar etengabeko esperientazioan dabilta ideiak, kanpainak, proiektuak eta produktuak asmatuz, beharizan berrietara egokitu eta hizkuntza gutxituak sustatzeko. Berrikuntzaren eredu garbia dira; lankidetzeta eta elkarlan modu berriak, harremanak eta eraldaketa biderkatzeko gakoak.

Erantzuteke dagoen erronka elkar ezagutzearena da. Ere mu urriko hizkuntzak bultzatzen lan egiten duten pertsona eta taldeek besteen ideia eta esperientzietatik ikasteko aukera izatea. Horretarako, beharrezkoa izango da praktika berritzaile eta arrakastatsuenak identifikatu eta ahal bezainbeste zabaltzea, prozesuak ikusgai jartzea eta eragileen arteko elkarriketak eta

topaketa erraztea, noski. Web plataforma batek bilduko du eragileek partekatu nahi duten guztia. Azkenik, sare osoa eta bere energia sortzaile eta berritzailea topaketa batean hezurmamtuko da; bertan erakutsi, entzun, ikasi eta partekatu ahal izango da edozein ideia eta proiektu, gure hizkuntza txikietatik Europa aniztunari ekarpena egiten jarrai dezagun.

Hay decenas de comunidades lingüísticas en Europa que ante todo tipo de dificultades que se les han ido presentando para poder desarrollar alguna actividad en su propia lengua, han tenido que ingeniárselas y crear mecanismos nuevos con tal fin. Desde movimientos sociales, pequeñas cooperativas, medios de comunicación, asociaciones culturales, centros educativos, instituciones públicas y demás experimentan constantemente con todo tipo de ideas, campañas, proyectos y productos para adaptarse a las nuevas necesidades e impulsar sus lenguas

minoritarias. Es pura innovación; nuevas formas de colaboración y cooperación, claves para multiplicar las relaciones y las transformaciones.

El reto pendiente es facilitar que se conozcan entre ellas. Que cualquier persona o grupo que trabaje promocionando lenguas minorizadas pueda aprender de las ideas y experiencias de los demás. Para eso, será necesario identificar y diseminar las más innovadoras y exitosas prácticas, hacer visible los procesos y, por supuesto, favorecer las conversaciones y los encuentros entre agentes.

Una plataforma web recopilará todo lo que los agentes estén dispuestos a compartir. Finalmente, toda esta red y toda su energía creativa e innovadora se condensará en el encuentro en el que se podrá mostrar, escuchar, aprender y compartir cualquier idea o proyecto válido para que sigamos aportando a la Europa diversa desde nuestras pequeñas grandes lenguas.

Itzultzaile berriak

Mugarik gabeko literatura
Literatura sin fronteras

EGONALDIA / TAILER IREKIA RESIDENCIA / TALLER ABIERTO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
TABAKALERA

ERAGILEAK AGENTES
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
LAGUNTZAILEAK COLABORADORES
EIZIE

itzultzaileberriak.dss2016.eu

#ItzultzaileBerriak

KOMUNIKAZIOA / ITZULPENGINTZA /
LITERATURA
COMUNICACIÓN / TRADUCCIÓN /
LITERATURA



«Europako hizkuntza itzulpena da». Umberto Ecoren adagioak ematen dio arnas proiektu honi. Atzerriko itzultzaileei bekak eskaini zaizkie, euskara hobetzeko. Argia da helburua: euskaraz idatzitako literaturaren mugak zabaltzea. Nazioarteko deialdia egin ondoren, honako itzultzaile hauek hautatu dira: Laura Liubinavicvte, Mariya Petrova Pachkova, Barbara Pregelj, Katarzyna Sosnowska, Merilin Kotta, Karina Mishchenkova, Lenka Niznanska eta Matylda Figlerowicz. Hala, irakurle lituandarrek, bulgariarrek, eslovakiarrek, poloniarrek, estoniarrek, errusiarrek eta txekiarrek euskaratik zuzenean itzulitako lanetarako sarbidea izango dute.

Itzultzaile berriek beren esperientziaren berri emango dute publiko zabalari irekitako jardunaldietan eta itzultzaileei zuzendutako saio espeziikoetan.

«La lengua de Europa es la traducción». El adagio de Umberto Eco alienta este proyecto que beca a profesionales extranjeros del mundo de la traducción para que mejoren su conocimiento del euskera. El propósito es claro: ampliar los límites de la literatura escrita en lengua vasca. Tras lanzar una convocatoria internacional, con la selección de Laura Liubinavicvte, Mariya Petrova Pachkova, Barbara Pregelj, Katarzyna Sosnowska, Merilin Kotta, Karina Mishchenkova, Lenka Niznanska y Matylda Figlerowicz, las y los lectores lituanos, búlgaros, eslovenos, polacos, estonios, rusos y checos podrán acceder a obras traducidas directamente del euskera.

Las nuevas traductoras ya seleccionadas compartirán su experiencia en jornadas abiertas al público general y en sesiones específicas dirigidas al sector de la traducción.

Break a Leg!

Hainbat gaitasun eszenan
Distintas capacidades a escena

LABORATEGIA / ANTZEZLANA
LABORATORIO / REPRESENTACIÓN



breakaleg.dss2016.eu

#BreakALeg

INKLUSIOA / ESKUBIDEAK /
ELKARTASUNA
INCLUSIÓN / DERECHOS /
SOLIDARIDAD

Tokiko eta nazioarteko lagun banak osatutako tandem baten zuzendaritza artistikopean, bi astez elkarrekin biziko dira hainbat gaitasun eta desgaitasun dituzten arte eszenikoetako hamasei profesional. Aste horietako lehenengoan laborategi moduko bat egingo da mugimendua eta lan eszenikoa jorratzeko, eta bigarrena partaideen gaitasun ezberdinetan oinarritutako proposamen eszeniko bat garatzeko izango da. Egonaldi honen emaitza bi saiotan erakutsiko da. Lehen saioa proiektuarekiko eta landutako gaiarekiko interes eta sentsibiltate berezia duten eragileei zuzenduta egongo da. Bigarrena, aldiz, publiko orokorrari irekita egongo da.

Bajo la dirección artística de un tándem formado por una persona local y una internacional, 16 profesionales de las artes escénicas con distintas capacidades y discapacidades, convivirán durante dos semanas. La primera servirá de laboratorio en el que experimentarán con el movimiento y el trabajo escénico, para dar paso a una segunda semana centrada en la elaboración de una propuesta escénica basada en las distintas capacidades de quienes participan. El trabajo desarrollado será expuesto en dos ocasiones. La primera sesión se dirigirá a agentes con especial interés y sensibilidad hacia el proyecto y la temática abordada. La segunda será una función abierta al público.

Poesiaren ibilaldia

La marcha de la poesía

Donostiako aztarna poetikoen atzetik
Tras las huellas poéticas de San Sebastián

HAPPENING

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

#2016Elkarrizketak
#Conversaciones2016

Udaberriko ekinokzioarekin bat eginez, herritarren literatura-prozesio honek Poesiaren Munduko Eguna ospatuko du Donostiako kaleetan barrena. Esther Ferrer artistak diseinatutako jarduera da, DSS2016Euk emandako *karta zuriaren* baitan, eta ibilaldi honek oihartzun poetikoak dituzten lekuak bisitatuko ditu. Horietan, poesia ahots goran irakurriko da; hain zuzen ere, lekuari berari edo gertaera, gai, edo pertsonaren bati lotutako olerkiak. QR kode banak identifikatuko du ibilbidea osatzen duten guneeetako bakoitza; horrela, parte-hartzaileek euren gailu mugikorren bitartez irakurri ahal izango dute toki bakoitzari dagokion poesia.

 POESIA / TRANSMISIOA
POESÍA / TRANSMISIÓN

Coincidiendo con el equinoccio de primavera, una procesión literaria ciudadana recorrerá San Sebastián para celebrar el Día Mundial de la Poesía. La marcha, ideada por la artista Esther Ferrer en respuesta a la *carta blanca* que le ha dado DSS2016EU, es una acción que se detendrá en diferentes puntos de la ciudad con reminiscencias poéticas, donde se leerá en voz alta una poesía vinculada al propio enclave, a un acontecimiento, a una temática o una persona. Los lugares que componen el recorrido estarán marcados por códigos QR, para que las y los participantes puedan leer desde sus dispositivos móviles los poemas asociados a cada localización.



Busto de Clara Campoamor por Lucas Alcalde

27 MAIATZA
MAYO

Ez Dok Amairu hitzez hitz

Hamabi kantu, eta konposizio instrumental bat
Doce canciones, más una composición instrumental

KONTZERTUA CONCIERTO

 FATIMA PARROKIA (ERRETERIA)

 ERAGILEAK AGENTES
ERESBIL, EHUKO LABOA KATEDRA

Kontzertu honetarako, Ez Dok Amairu kultura mugimendu abangoardistak (1965-1972) plazaratu zituen hamabi kantu aukeratu dira. Gaur egungo beste hainbeste musikagilek jatorrizko kantuen berridazketak edo harmonizazioak aurkeztuko dituzte, eta lau abesbatza gazteen ahotan jarriko dira. Garai hartako euskal poeta eta kantarien hitzak entzun ondoren, emanaldia biribiltzeko, musika hutsez osatutako hamahirugarren pieza bat eskainiko da, zenbakiaren begizkoa baliogabetzeko.

Para este concierto se han seleccionado doce canciones grabadas por miembros del movimiento cultural vanguardista Ez Dok Amairu (1965-1972), y otros tantos compositores actuales presentarán versiones o armonizaciones de estos temas, interpretadas por cuatro coros

#2016elkarrizketak
#conversaciones2016

 MUSIKA / ONDAREA
MÚSICA / PATRIMONIO

juveniles. Tras escuchar las doce canciones escritas por autores vascos de aquella época, y como colofón al concierto, la decimotercera pieza será una composición instrumental, para romper el maleficio del número.



Iñigo Rayo, 2015

1 APIRILA
ABRIL

ICMA Awards

Donostia, musika klasikoaren erdigunea
San Sebastián, epicentro de la música clásica

KONTZERTUA CONCIERTO

 KURSAAL

 ERAGILEAK AGENTES
EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA

ICMA sariak (International Classical Music Awards) musika klasikoaren alorrean banatzen diren sari nagusiak dira, eta 2016an Donostian emango dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta DSS2016EUren arteko kolaborazioari esker. Bi erakundeek elkarrekin bultzatu zuten Gipuzkoako hiriburuaren hautagaitza sari-banaketaren egoitza izateko, eta biak izango dira erakunde-anfitrio: sari-banaketaren ekitaldia eta ondorengo gala-kontzertua antolatzeaz arduratuko dira.

Los premios International Classical Music Awards (ICMA), los máximos galardones de la música clásica, se entregarán en San Sebastián en 2016, gracias a la colaboración entre la Orquesta Sinfónica de Euskadi y DSS2016EU. Ambas instituciones impulsaron la candidatura de la capital guipuzcoana como sede de la ceremonia, y serán las organizaciones anfitrionas, encargadas de organizar la entrega de premios y el posterior concierto de gala.

#2016Elkarrizketak
#Conversaciones2016

 MUSIKA / SARIAK
MÚSICA / PREMIOS

UZTAILA - IRAILA
JULIO - SEPTIEMBRE

DONOSTIAPEDIA	74
HORMEK DIOTE	
PARDES QUE HABLAN	75
CODEFEST	75
EUROPA BAT-BATEAN	
DE REPENTE, EUROPA	77
CORALE	78
ITSASFEST	78
EIECINE ZINEMA IKASLEEN	
NAZIOARTEKO TOPAKETA	
ENCUENTRO INTERNACIONAL DE	
ESTUDIANTES DE CINE	78
KALEBEGIAK	79
IKUSMIRA BERRIAK	80
GABON TXIRRITA	80
CORNERS OF EUROPE	81
PLAZ & PLAY	83
STREET TARTAR	83
12 POINTS	84
GLAD IS THE DAY	84
ZINEMA ETA GATAZKAK	
CINE Y CONFLICTOS	84

Donostiapedia

XXI. mendeko auzolan digitala
El trabajo comunal digital del siglo XXI

WEBGUNEA PÁGINA WEB

donostiapedia.dss2016.eu

#Donostiapedia

COMMONS / EZAGUTZA / HIZKUNTZAK
COMMONS / CONOCIMIENTO / LENGUAS

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak eta Wikipediaren hamabosgarren urteurrenak bat egiten dutela aitzakia hartuta, Wikipedia-hiri bihurtuko dugu Donostia. Nola? Hiriko eragileekin lankidetzan, hiriaren historia eta kulturari buruzko artikulua argitaratu eta edonorentzako eskuragarri jarriz. Hiriko leku esanguratsuetan kokatutako QR kodeek mundu fisiko eta digitalaren arteko lotura sortuko dute, eta erabiltzaileari artikulua bere hizkuntzan erakutsiko dizkiote.

Wikipediako ezagutza eta herritar zein bisitarien esperientzia uztartu nahi ditu ekimenak. Donostiari buruzko ezagutza bildu, eta gure hizkuntzetan ez ezik, ahalik eta hizkuntza gehienetara zabaldu. Horrekin batera euskal Wikipedia indartzea eta hiriri buruzko informazioa handitu, zabaldu eta modu errazean eskuragarri jartzea ere lortu nahi du proiektuak.

Arnas luzeko proiektua da dudarik gabe, Kultur Hiriburutza baita hasiera eman eta aurrera begira bere ibilbidea egingo duena. Abiapuntu gisa, ekimen

zehatzak definitu dira: Amarpedia auzolandegia, Wikipedia ikastetxeetan, edit-a-thon maratolak... Guztietan hiria bera eta herritarrak izango dira protagonista, Donostiari buruzko ezagutza sortuz eta zabalduz.

Zure parte-hartzea behar-beharrezkoa da hiriaren eraikuntza digitalean.

La Capitalidad Europea de San Sebastián 2016 coincide con el decimoquinto aniversario de la Wikipedia. Con ese motivo, convertiremos San Sebastián en una wiki-ciudad. ¿Cómo lo haremos? Mediante el trabajo conjunto con agentes y ciudadanía, generando y publicando artículos sobre la historia y la cultura de la ciudad. Colocaremos códigos QR en lugares emblemáticos, para mostrar a usuarias y usuarios los artículos en su propia lengua, y creando así un nexo entre el mundo físico y virtual.

Donostiapedia pretende unir el conocimiento de la Wikipedia con la experiencia propia de la ciudadanía y sus visitantes. El objetivo es recopilar todo ese conocimiento colectivo sobre



San Sebastián, partiendo de nuestras lenguas locales, y traducir los artículos al mayor número posible de lenguas. Junto a ello, el proyecto también pretende fortalecer la Wikipedia en euskera y aumentar y facilitar la información sobre la ciudad. Se trata, sin duda, de un proyecto a largo plazo que se iniciará durante la Capitalidad y continuará su camino después. Se han creado algunas

iniciativas concretas a modo de inicio: el taller vecinal Amarpedia, Wikipedia en los centros escolares, maratones edit-a-thon... En todas ellas la ciudad misma y la ciudadanía serán protagonistas, creando y difundiendo el conocimiento sobre San Sebastián.

Tu participación es indispensable para la construcción digital de la ciudad.

Hormek diote Paredes que hablan

Hormak bizikidetzaren balioaren igorle
Paredes transmisoras de convivencia

ESKUHA RTZEA / PROIEKZIOA / DANTZALDIA

INTERVENCIÓN / PROYECCIÓN / BAILE

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
PASAIA
ERRETERIA

ERAGILEAK AGENTES
EREITEN

hormekdiote.dss2016.eu
paredesquehablan.dss2016.eu

#HormekDiote
#ParedesQueHablan

@BakeaPaz2016

INKLUSIOA / ERRESPE TUA /
HEZKUNTZA / BIZIKIDETZA
INCLUSIÓN / RESPETO / EDUCACIÓN /
CONVIVENCIA

2015eko urrian hasitako ekimena.
Actividad iniciada en octubre de 2015.



Koldo Almandoz - Javi Agirre - Donostia - 2015

Codefest

Hizkuntz komunitateentzako baliabideak
Herramientas para comunidades lingüísticas

MINTEGIA / IKASTAROA / TAILERRA

SEMINARIO / CURSO / TALLER

IBAETAKO CAMPUSEAN
CAMPUS DE IBAETA

IZEN-EMATEA INSCRIPCIÓN
WEB BITARTEZ / EN LA WEB

100 PLAZA
100 PLAZAS

ERAGILEAK AGENTES
DONOSTIAKO INFORMATIKA
FAKULTATEA, IXA TALDEA

codefest.dss2016.eu

#Codefest

HIZKUNTZAK / KODE IREKIA
LENGUAS / CÓDIGO ABIERTO

Nazioarteko Codefest udako eskolak eremu urriko hizkuntzentzako baliabide teknologikoak jarri nahi ditu eskura, eguneroko komunikazio elektronikoetan norberaren ama hizkuntza erabiltzea sustatzeko helburuarekin. Astebeteko tailer praktikoan, elkarrekin lan egingo dugu hizkuntzalari, software-garatzailer, ikasle eta hizkuntzarekiko grina daukan jendeak. Zuk zeuk, adibidez!

Ez dago aditua izan beharrik, edonork parte har dezake. Hizkuntzarekiko zaletasuna eta haren alde zerbait egiteko gogoa dira baldintza bakarrak. Auzolana izango dugu oinarri, egindakoaren kodea partekatuko dugu eta emaitza komunitatearen esku utzi.

Bost horma: hiru Donostian, bat Pasaian eta Erreterian beste bat. Esku-hartzze bana jasango dute beren azalean. Artea eta, teknologia berriei esker, interakzio-aukera eskainiko diete Donostiako zein kanpoko bizilagunei. Haietan paratuko diren lanak bertako artistek zein atzerrikoek egingo dituzte: Mentalgassik, Igor Rezolak, Judas Arrietak, Harsak, Jenny Karna-Escalantek, Ismael Iglesiasek, Horma Chic kolektiboak eta Las Chicas de Pasaik-ek. Hormak 2015eko udazkenean margotuko dituzte, eta 2016an berriro ere beste arte-adierazpen batzuen (dantza, zinema...) lekuko izango dira.

Hormak, harresiak, gure egunerokotasunaren parte dira. Banatu, zedarritu, eutsi, oztopatu... egiten dute. Igo, jaitsi edo inguratu egin behar izaten ditugu eta, ia-ia oharkabean, egunero hartu-emana dugu eraikuntza horiekin. Hormek diote proiektuak harreman horri begiratzeko modu berri bat margotu nahi du eta, horretarako, ziurrenik, guztietan den eta arte-adierazpenik antzinakoena eta oinarritzakoena aukeratu dugu: horma-irudia. Ahaleginduko gara paretak bizikidetzari-ikur bihurtzen, pertsona guztientzat etorkizun oparoago bat eragozteko gero eta harresi gehiago eraikitzen den uean.

Cinco paredes: tres de San Sebastián, una de Pasaia y otra de Erretería serán objeto de sendas intervenciones que aunarán arte y la posibilidad de interacción gracias a las nuevas tecnologías. Las obras correrán a cargo de artistas tanto locales como foráneos entre los que se encuentran Mentalgassi, Igor Rezola, Judas Arrieta, Harsa, Jenny Karna-Escalante, Ismael Iglesias, Iñigo Salaberria, el colectivo Horma Chic y Las Chicas de Pasaik, entre otros. Las obras, que se pintarán en otoño de 2015, serán revisitadas como espacio escénico para la danza y proyecciones en 2016.

Estos elementos urbanísticos marcan nuestro día a día. Separan, delimitan, sostienen, obstruyen... espacios públicos y privados. Las personas debemos subirlos, rodearlos, o bajarlos. Prácticamente sin darnos cuenta de ello, mantenemos un diálogo diario con estos elementos arquitectónicos. Paredes que hablan pretenden ser un altavoz de esa relación, una reivindicación de la comunicación en construcciones levantadas para separar; y para ello se valdrá de, posiblemente, la expresión artística más antigua y básica de todas: el mural. Intentaremos que las paredes se conviertan en elementos de convivencia, frente a los muros y barreras que construimos para poner trabas el deseo de alcanzar un futuro mejor para todos los seres humanos.



La escuela de verano Codefest Internacional quiere poner a disposición de las y los usuarios recursos tecnológicos para aprender lenguas minorizadas, para que tengamos la oportunidad de utilizar nuestra lengua madre en las comunicaciones electrónicas. Durante un taller práctico de una semana trabajaremos con lingüistas, desarrolladores de software, alumnos y personas animadas a aprender lenguas. Por ejemplo... ¡tú misma o tú mismo!

No es necesario ser experto: cualquiera puede participar. La afición por las lenguas y las ganas de hacer algo en su favor son las únicas condiciones. El trabajo comunal será la base, compartiremos el código de lo realizado y pondremos el resultado en manos de la comunidad.



Iban Zaldúa

IDAZLEA ETA EHU KO IRAKASLEA
ESCRITOR Y PROFESOR DE LA UPV

Dena

—Wikipedian den-dena dago.
—Ez esan ergelkeriarik.
—Egia da —umeak, irmo—. Begiratu bestela zure izena.
—Ni ez nago Wikipedian —zorionez, pentsatu du agureak—. Edonola, utzi ordenagailu hori. Eta itzuli besteekin; tarta jatera doaz. Neskak ospa egin du. Ane du izena; bilobaren gelakoa da. Halere, Wikipedia ireki eta bere izen-abizenak idatzi ditu. Badaezpada. Bertan dago ordea. Sarrera labor-labor batean, 1980ko hilketa batean parte hartu zuela zehazten duena. Sekula argitu ez zen soldatzaile haren aurkako atentatuan. Eta —hasieran ez da ohartu—, bere jaiotza dataren ondoan, heriotzarena. Gaurkoa hain zuzen. Burua teklatuaren gainean topatu dute. Bihotzekoa, antza. Inork ez du bilatu, jakina, soldatzaile haren izena: hala eginez gero, sarrera labor-labor batean, Ane izeneko birbiloba bat izango zukeela ikusiko luke. Den-dena dago Wikipedian.

Todo

—En la Wikipedia está todo. Absolutamente todo.
—No digas tonterías.
—Es verdad —responde la niña con firmeza—. Mira si no tu nombre.
—Yo no estoy en la Wikipedia —por fortuna, piensa el viejo—. De todas maneras, apártate de ese ordenador. Y vuelve con los demás, que están a punto de comerse la tarta.
La niña se marcha. Se llama Ane, es de la clase de su nieto. Entonces abre la Wikipedia y escribe su nombre y su apellido. Por si acaso. Y ahí está. En un artículo muy breve que señala que en 1980 participó en un asesinato. En el atentado contra aquel soldador, que nunca se resolvió.
Y —al principio no se ha dado cuenta—, junto a su fecha de nacimiento, la de su muerte. La del día de hoy, precisamente. Lo encuentran con la cabeza sobre el teclado. Un infarto, casi con seguridad.
A nadie se le ha ocurrido buscar, claro está, el nombre de aquel soldador: si lo hubieran hecho habrían podido ver, en un artículo muy breve, que habría llegado a tener una bizneta, de nombre Ane. Todo, absolutamente todo, está en la Wikipedia.

Orona



KULTURA SUSTATUZ ELEVANDO LA CULTURA



Orona Fundazioak topagune bat sortu nahi du hezkuntzaren, gizartearen, kirolaren, kulturaren, ekonomiaren eta erakundeen esparruetako eragileekin. Gizartearen garapena sustatzeko baliagarriak diren ezagutzen eta ideien trukea erraztea da helburua. Donostia / San Sebastián 2016aren helburuak partekatzen ditugu.

Eskerrik asko gugan konfiantza jartzeagatik.

La Fundación Orona pretende generar un espacio de encuentro con agentes educativos, sociales, deportivos, culturales, socio-económicos e institucionales, buscando un mejor intercambio de conocimiento e ideas que, finalmente, se transforman en resultados que fomentan el desarrollo de la sociedad. Compartimos objetivos con Donostia / San Sebastián 2016.

Gracias por confiar en nosotros.

Orona
fundazioa
www.oronafundazioa.org


9 - 16 UZTAILA JULIO AHOTSAK VOCES

Europa bat-batean De repente, Europa

Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa
Encuentro europeo del canto improvisado

TOPAKETA ENCUESTRO

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
PALACIO MIRAMAR, ESPACIO
PÚBLICO, ESPACIO 2016, KURSAAL

👤 ERAGILEAK AGENTES
BERTSOZALE ELKARTEA, MINTZOLA
FUNDAZIOA, CURSOS DE VERANO
DE LA UPV-EHU

🌐 europabatbatean.dss2016.eu
derepenteuropa.dss2016.eu

#EU1_1ean

📌 ITZULPENGINTZA / HIZKUNTZAK
/ HIBRIDAZIOA / TRADIZIOA
/ AHOZKOTASUNA /
KULTURARTEKOTASUNA /
FEMINISMOA
TRADUCCIÓN / LENGUAS /
HIBRIDACIÓN / TRADICIÓN /
ORALIDAD / INTERCULTURALIDAD /
FEMINISMO



Conny Beyreuther - 2003

Europako inprobisatzaile onenek Donostian izango dute hitzordua, Europako kulturen ahozko tradizioen nazioarteko topaketan. Ekimen honen aurrekaria 2003koa da, Bertsozale Elkartek lehenengoz antolatutakoaren. Gipuzkoako hiriburuan topaketa bat: *Ahozko Inprobisazioa Munduan*.

Oraingoan, Mintzola Fundazioak DSS2016EUrekin lankidetzan jardungo du, ekimen hari jarraitutasuna emateko eta ahozko inprobisatzaileen nazioarteko sarea sendotzeko. Ordezkaririk sardinia, kurdu, galego, kanariar, katalan, galestar, austriar eta poloniarrek bertsoariarekin batera jardungo dute eta, horrela, zenbait tradizio batera jarriko dute eszenan, kulturen arteko elkarriketa batean.

Gurutzaketa horiek arratsaldero herriarren bila aterako dira; izan ere, hiriko espazio publikoetan izango dira.

Goizetan, EHUREn Uda Ikastaroekin lankidetzan, gaian adituak direnek eremu horretan sakondu eta azken ikerketen berri emango dute.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa, gutxiengoan dauden hizkuntzen testuinguruen eta ahozko tradizioaren arteko erlazioa, genero-ikuspegia eta zientzia eta teknologian aplikatutako ikerketak goizetako hitzaldien edukien eta arratsaldeko aurkezpenen inspirazio izango dira.

Nazioarteko topaketa Donostian izango da, uztailaren 9tik 16ra, eta itxiera-ekitaldia egingo da Kursaal; bertan, munduko hainbat ahozko tradizio batuko dira. Gosegarri gisa, 2016ko udaberrian, Euskal Herrian aurretiko jardunaldi batzuk egingo dira, udazkenean Leonen eta Bartzelonan egin ostean.

Las mejores improvisadoras e improvisadores de Europa se darán cita en San Sebastián en el encuentro internacional de las tradiciones orales de las culturas europeas. El precedente de esta iniciativa se remonta al año 2003, cuando Bertsozale Elkartea organizó por primera vez en la capital guipuzcoana un encuentro bajo el título *Improvisación oral en el mundo*.

Esta vez, Mintzola Fundazioa trabajará en colaboración con DSS2016EU, para dar continuidad a aquel evento y reforzar la red internacional de improvisadoras e improvisadores orales. Representantes sardos, kurdos, gallegos, canarios, catalanes, galeses, austriacos y polacos actuarán junto a bertsozaleak, provocando la confluencia en escena de diferentes tradiciones en un diálogo intercultural.

Estos cruces saldrán cada tarde al encuentro de la ciudadanía puesto que se celebrarán en

espacios públicos de la ciudad. Por las mañanas, en colaboración con los Cursos de Verano de la UPV, especialistas en la materia profundizarán en este ámbito y difundirán las últimas investigaciones.

La transmisión de generación en generación, la relación entre la tradición oral y los contextos de lenguas minoritarias, la perspectiva de género y las investigaciones aplicadas en ciencia y tecnología inspirarán tanto los contenidos de las conferencias matinales como las presentaciones que tendrán lugar a la tarde.

El encuentro internacional tendrá lugar en San Sebastián del 9 al 16 de julio, y finalizará con un acto en el Kursaal en el que se fusionarán las diversas tradiciones orales del mundo. Como aperitivo, en primavera de 2016, se desarrollarán unas jornadas previas en el País Vasco tras las realizadas en otoño en León y Barcelona.

UZTAILA JULIO

URRIA OCTUBRE

AHOTSAK VOCES

Corale

Iragana-oraina-etorkizuna
Pasado-presente-futuro

MINTEGIA / ERAKUSKETA / KONTZERTUA

TALLER / EXPOSICIÓN / CONCIERTO

 GIPUZKOA, LAPURDI	 #Corale
 ERAGILEAK AGENTES PHILLIPPE REGNIER, SARA KO OANDRE KULTURALA ELKARTEA, HEGO LAPURDIKO HIRIGUNEA, INESFERA, CONFEDERACIÓN DE COROS DEL PAÍS VASCO, GIPUZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOA, ERESBIL, SARAKO HERRIKO ETXEA	 GEOGRAFIA KOMUNA / ANIZTASUNA / INKLUSIOA / ELKARBIZITZA / ARTE ESZENIKOAK / MUSIKA / DANTZA / ARGAZKILARITZA / ARTE BISUALAK / TRADIZIOA / BITARTEKARITZA / IKUSENTZUNEZKOAK /TEKNOLOGIA/ KULTURARTEKOTASUNA
LAGUNTZAILEAK COLABORADORES OKENDO KULTUR ETXEA, DONOSTIA KULTURA, GAUTENA	GEOGRAFÍA COMÚN / DIVERSIDAD/ INCLUSIÓN / CONVIVENCIA / MEMORIA / EDUCACIÓN / ARTES ESCÉNICAS / MÚSICA / DANZA / FOTOGRAFÍA / ARTES VISUALES / TRADICIÓN / MEDIACIÓN / AUDIOVISUAL / TECNOLOGÍA / INTERCULTURALIDAD
 corale.dss2016.eu	

Corale hiru ekintzek osatuko dute, tradizio koralak, Hiriburutzaren lurraldean duen garrantziaren inguruko hausnarketa sustatuko dutenak eta honekin batera kultur-nortasuna, folklorea eta hezkuntza-balioa.

Horretarako Eresoinka Enbajada Kulturalaren esperientzia gogoraraziko duen erakusketa bat antolatuko da Okendo Kuttur Etxean eta baita erakustaldi koralez osatutako ekitaldi bat ere, *Eresoinkaren Itzalak*.

Horrez gain, jarduera koralaren transmisio-gaitasuna nabarmentzeko, bi tailer antolatuko dira: bat, sehaska- eta lo-kanten ondareari buruzkoa; beste bat, integrazioaren aldekoa, Gautenaren laguntzarekin (Gipuzkoako Autismo Elkarte).

Corale se compondrá de tres actividades que fomentarán la reflexión sobre el vínculo de una de las tradiciones más enraizadas en el territorio de la Capitalidad, la coral, con la identidad cultural, el folklore y el valor educativo.

Lo hará mediante una exposición ubicada en el C.C. Okendo que recordará la experiencia de la Embajada Cultural Eresoinka y un evento de espectáculos corales bajo el título *Eresoinkaren Itzalak*.

Asimismo, para subrayar la capacidad de transmisión de la actividad coral, se organizarán dos talleres: uno en torno al patrimonio de canciones de cuna y regazo y otro a favor de la integración en colaboración con Gautena (asociación Gipuzkoana de autismo).

27 ABUZTUA AGOSTO

BIZITZA VIDA

Itsasfest

Natura eta gu
Por la exaltación de la naturaleza

JAIALDIA / IBILALDIA / TAILERRA

FESTIVAL / RECORRIDO / TALLER

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN ONDARRETA KO HONDARTZA PLAYA DE ONDARRETA	 itsasfest.dss2016.eu
 #Itsasfest	
 ERAGILEAK PROMOTORES JAIZKIBEL AMAHARRI, SURF RIDER FOUNDATION EUROPE	 NATUR ONDAREA / ITSASOA / BALIO ETIKOAK / ELKARBIZITZAK / MUSIKA PATRIMONIO NATURAL / MAR / VALORES ÉTICOS / CONVIVENCIAS / MÚSICA



Ondarretako hondartza izango da ingurumena herritarrei hurbildu nahi dien jaialdi handi honen kokalekua. Denon atseginerako jaia, aukera egongo da tailer eta jokoetan parte hartzeko, eta produktu osasuntsu eta zapoetsuak erosteko; dena musikaren erritmoan. Hori guztia gure natur inguruarekin harreman iraunkorragoa sustatzeko. Jaialdia baino lehen, bi geo-ibilbide egingo dira itsasertzetik; orobat, kostako zaintzaileen plataforma bat sortuko da, herritarrek itsasoa babesteko lanetan duten parte-hartzea areagotzeko.

La playa de Ondarreta será el marco de un gran festival que busca acercar el entorno a la ciudadanía. Una fiesta para todos los gustos donde se podrá participar en talleres, juegos, adquirir productos sanos y sabrosos. Y todo al ritmo de la música. Todo esto para fomentar una relación más sostenible con nuestro entorno natural. Previo al festival, se llevarán a cabo dos georutas por el litoral, y paralelamente, se pondrá en marcha una plataforma de guardacostas para ahondar en la participación de la ciudadanía en la protección del mar.

20 - 23 IRAILA SEPTIEMBRE

AHOTSAK VOCES

Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa Encuentro Internacional de Estudiantes de Cine

TOPAKETA

ENCUENTRO

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	 zinemaikasleak.dss2016.eu estudiantesdecine.dss2016.eu
 ERAGILEAK AGENTES FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIÁN, TABAKALERA	 #Zinemalkasleak #EstudiantesDeCine
LAGUNTZAILEAK COLABORADORES PANAVISION, AGENCIA FREAK / FEELSALES, BIOBIOCINE FESTIVAL INTERNACIONAL CONCEPCIÓN CHILE, SHORT FILM CORNER, TORINOFILMLAB, ORONA FUNDAZIOA	 ZINEA / IKUSENTZUNEZKOAK / ELKARBIZITZA / DONOSTIAKO ZINEMALDIA / CINE / AUDIOVISUALES / CONVIVENCIA / FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN

Mundu osoko zinema-eskoletako ikasleen lanak biltzen dituen hitzordu finkoa da. Hautatutako filmak saio irekietan aurkezten dira. Gainera, praktika eta teoria zinematografikoari buruzko hitzaldiak eta nazioarteko ikus-entzunezko industriako profesionalak emandako eskola magistralak barne hartzen ditu ekimenak. Hainbat sari eskuratzeko aukeraz gain (besteak beste, filmatze-lanetarako ikus-entzunezko ekipamendua uztea, nazioarteko 50 jaialditan izena ematea edo diru-saria), partaideek Donostiako Zinemaldia elkarrekin biziitzeko aukera dute, bai eta jaialdiaren testuinguruan dakitena eta ikasten dutena trukatzeko ere.

Cita consolidada que reúne a estudiantes de escuelas de cine de todo el mundo. La selección de sus cortometrajes se presenta en sesiones abiertas que se completan con coloquios sobre la práctica y teoría cinematográfica y con clases magistrales impartidas por profesionales de la industria audiovisual internacional. Además de optar a diferentes premios, entre otros la cesión de equipamiento audiovisual para rodajes, la inscripción en 50 festivales internacionales o una gratificación económica, sus participantes conviven y comparten conocimientos y aprendizaje dentro del marco del Festival de Cine de San Sebastián.

IRAILA SEPTIEMBRE

AHOTSAK VOCES

Kalebegiak

Hiri bat, hamabi begirada
Una ciudad, doce miradas

PROIEKZIOA

PROYECCIÓN

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	 kalebegiak.dss2016.eu
 #Kalebegiak	
 Kalebegiak2016	
 kalebegiak2016	
 ZINEMA / ADIERAZPENA / ARTE BISUALAK / SORKUNTZA PARTEKATUA CINE / EXPRESIÓN / ARTES VISUALES / COCREACIÓN	

Kalebegiak Donostiaren gaineko begirada kolektiboa da. Donostia eszenatoki hartuta, hamabost zuzendarik ekoiztiko hamabi istoriorik osatuko dute filma, eta Donostiak istorio-iturri gisa duen ahalmena azpimarratuko da bertan. Larrotxene Kultur Etxearen sabelean hazita eta Michel Gaztambidek eta Jorge Gilek zuzenduta, honako egiaztapen honetatik jai da: azken berrogeita hamar urteotan, zinea kultura-motor garrantzitsuenetako bat —garrantzitsuena ez bada— izan da hiriarentzat eta inguruarentzat, eta izen esanguratsuak eman dizkio nazioarteko eszena zinematografikoari. Proiektuak izen sonatu horietako batzuen eta talentu berrien elkarbizitza ahalbidetuko eta eragingo du. Film luzea osatuko duten film laburrak honako hauek zuzenduko dituzte: Koldo Almandoz, Asier Altuna eta Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho —Inko Martinen gidoia zuzenduko du—, Borja Cobeaga, María Elorza eta Maider Fernández —*Las chicas de Pasaik*—, Isabel Herguera eta Izibene Oñederra, Ekain

Kalebegiak es una mirada colectiva sobre San Sebastián. Una película formada por doce historias realizadas por quince directores y directoras con la ciudad de San Sebastián como escenario, subrayando su potencial como fuente de historias. Gestada desde el Centro Cultural de Larrotxene y coordinada por Michel Gaztambide y Jorge Gil, nace de la constatación de que en los últimos cincuenta años el cine ha sido uno de los motores culturales más importantes —si no el más importante— de la ciudad y su entorno, aportando nombres muy destacados a la escena cinematográfica internacional. El proyecto permitirá, y provocará, la convivencia entre algunos de esos ilustres nombres con nuevos talentos. Las obras que conformarán el filme serán dirigidos por Koldo Almandoz, Asier

«La misma realidad, aquello que nos rodea, puede tener diferentes lecturas. El secreto está en quién la mira.»

Altuna y Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho —dirigiendo el guión de Inko Martín—, Borja Cobeaga, María Elorza y Maider Fernández —*Las chicas de Pasaik*—, Isabel Herguera e Izibene Oñederra, Ekain Irigoien, Julio Medem, Gracia Querejeta eta Imanol Uribe. Gainera, *Kalebegiak* gure lurraldeko talentu handieneko teknikariez elikatuko da; besteak beste, honako diziplina hauetan: soinu-banda sortzea, argazki-zuzendaritza, muntaiak... Kontsagratutako izenei Larrotxeneko ikasleak batuko zaizkie hainbat zinematografia-sailetan. Tokio talentuaren aldeko apustu horrek Musikeneren partaidetza izango du musika sortzean, eta Euskal Herriko Unibertsitatearena azpitoluen itzulpenean.



Koldo Agirre - 2015



Borja Cobeaga

Zinema azokako barraka batean hasi zen, eta esan liteke sekula ez dela bertatik irten. Baina artistak, nobelagileak, musikariak, arkitektoak eta teknologia honetan aukera handiak ikusi dituzten mota guztietako egileak erakarri dituen barraka da. Horrela, zinemak bizitza bikoitza bizi izan du; harremana izan du industria eta kulturala denarekin eta komertziala eta artistikoa denarekin. Sarritan, sinetsarazi nahi digute gauza batek ala besteak izan behar duela, ezinezkoa dela bi xede horiek bateragarri egitea. Hala ere, esperientziak erakusten digu

irauten duten lanak direla gusturik zorrotzenen onespina dutenak eta publiko handia berenganatu dutenak.

Donostiak historikoki harreman handia izan du Europako gainontzeko herrialdeekin, eta lotura hori estutu egin da azken aldian, Donostia eta Baiona euskal Eurohirian protagonismoa hartu duenetik.

DSS2016EU proiektuak kokapen estrategiko hau baliatu du zenbait ekimenen bidez are gehiago sustatzeko modu naturalean izan duen lurralde arteko konexio hori, xede izanik elkar aberastea eta Europan hobeto integratzea.

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu aukeratu zuten, beste arrazoi batzuen artean, kultur programan europar dimentsioa modu egokian txertatu zuelako, hain zuzen. Europak hautaketa-batzordeak goraipatu egin zuen proiektuak bere baitako jardueren bidez kontinenteko hirien arteko elkartrukerako sare bat sortzearen alde egiten duela, kultur aniztasuna sustatu eta europar identitate komuna indartzeaz gain.

HAINBAT HERRIALDETAKO ARTISTA ETA ERAGILEREN ARTEKO LOTURA

Enbaxada ibiltariak dira DSS2016EUK Europako beste herri, kultur eragile eta artista batzuekin harremantzeko abian jarri duen tresna nagusia. Era askotako garraiobideen bitartez, Donostiak Europako zenbait hiri eta herrialdetako esperientziak jasoko ditu.

Kultur programako ekimen ugari, esate baterako, *Corners of Europe* proiektuak, europar sare hori sortzen lagunduko dute. Guztira, hamar bat herrialdetako 50 artista eta ikertzaile baino gehiagok eta 30 kultur erakunde baino gehiagok parte hartzen dute plataforma horretan.

Eta, jakina, Hiriburutzak Donostiari ahalbidetu dio iraganeko, oraingo eta etorkizuneko Europako kultur hiriburuekin lotura estua izatea, Pilsen, Wrocław eta Aarhusen, kasu, baita kultur arloan aktiboak diren beste hiri batzuekin ere, Derry eta Hull kultur hiriekin, adibidez.

APUSTUA ANIZTASUNAREN ALDE

Hizkuntz aniztasuna DSS2016Euren identitate ikur nagusietako bat da, eta hori argi uzten dute zenbait proiektuk, *Other Words*, *In Varietate Concordia* eta *Itzultzaile berriak* proiektuek, esate baterako.

Donostia 2016k kultur aniztasunaren aberastasuna goretsi nahi du eta, horretarako, arte-diziplina ugari lantzen ditu: musika *Emusik* proiektuan, ahozkotasuna *Europa bat-batean* proiektuan, literatura *Chejov* vs. *Shakespeare*-en... Erlijioarteko solasaldiak ere izango du tartea *Baitara baita* ekimenean, eta *Zubideak* bezalako beste proiektu batzuk propio diseinatu dira Donostia kultur aniztasunaren erakusleho bihur dadin.

EUROPAR KULTURA PARTEKATUA

Europako Kultur Hiriburutza aukera ona da tokiko kulturaren berezitasunak ezagutzera emateko baina, batez ere, gure Europako herritar izaera sustatzeko eta kultur ondare partekatua goraipatzeko parada izango da.

Bake-ituna Europako ondare artistikoaren erakustaldi bikaina izango da, nazioarteko museo ugiritako lanak hartuko baititu eta garai historiko ezberdinak aztertzearen bidez Europako bakeari buruzko gogoeta ekarriko baitu.

Europar kultura partekatua laudatuko duten beste proiektu batzuk *Uda-gau bateko ametsa*, *Tratos* eta *Europar elkarriketak* izango dira. Lehenengo biek Shakespeareren eta Cervantesen heriotzaren 400. urteurrena ospatuko dute eta besteak Europaren eraikuntzarekin lotutako gaiak landuko ditu herritarren debateetan.

San Sebastián ha guardado históricamente un fuerte vínculo con el resto de Europa, unos lazos que se han visto estrechados en tiempos recientes por su inclusión protagonista en la Eurociudad vasca San Sebastián-Baiona.

El proyecto DSS2016EU aprovecha esta ubicación estratégica para fomentar más si cabe esta conexión interterritorial natural mediante diversas iniciativas, en busca de un enriquecimiento mutuo y una mayor integración europea.

San Sebastián fue elegida Capital Europea de la Cultura 2016, entre otras razones, precisamente porque incorporó adecuadamente la dimensión europea en su programa cultural. El comité europeo de selección reconoció que este proyecto aboga mediante sus actividades por generar una red de intercambio con otras ciudades del continente, promover la diversidad cultural y reforzar la identidad común europea.

CONEXIÓN ENTRE ARTISTAS Y AGENTES DE VARIOS PAÍSES

Las embajadas itinerantes son la principal herramienta que DSS2016EU ha puesto en marcha para conectarse con otras ciudades, agentes culturales y artistas de Europa. Mediante diversos medios de locomoción, San Sebastián recogerá experiencias de múltiples ciudades y países europeos.

Algunas iniciativas del programa cultural, como *Corners of Europe*, contribuyen igualmente a generar una red de conexiones europeas. En total, más de 50 artistas e investigadores y más de 30 organizaciones culturales de una decena de países forman parte de esta plataforma.

Y, por supuesto, la Capitalidad está permitiendo a San Sebastián establecer contactos con capitales europeas de la cultura pasadas, presentes y futuras como Pilsen, Wrocław o Aarhus, así como con otras ciudades culturalmente activas, como las capitales británicas de la cultura Derry y Hull.

UNA APUESTA POR LA DIVERSIDAD

La diversidad lingüística es una de las señas de identidad de DSS2016EU, algo que resulta patente mediante proyectos como *Other Words*, *In Varietate Concordia* o *Itzultzaile berriak*.

San Sebastián 2016 pretende realzar la riqueza de la diversidad cultural en diferentes disciplinas artísticas: música con *Emusik*, oralidad con *De repente Europa*, literatura con *Chejov vs Shakespeare*, etc. El diálogo multirreligioso tendrá su espacio en *Baitara baita* y otros proyectos como *Zubideak* han sido diseñados especialmente para ser una muestra del abanico de culturas europeas en San Sebastián.

CULTURA COMÚN EUROPEA

La Capitalidad Europea de la Cultura es una oportunidad para fomentar las particularidades de la cultura propia del lugar, pero sobre todo para reconocer nuestra condición de ciudadanos europeos y celebrar nuestro patrimonio cultural común.

Tratado de paz será una gran muestra de ese patrimonio artístico europeo, con obras de numerosos museos internacionales y diversos periodos históricos que plantean una reflexión sobre la paz en Europa.

Otros proyectos que celebran esta cultura común europea son *Sueño de una noche de verano* y *Tratos*, que conmemorarán el 400º aniversario de la muerte de Shakespeare y Cervantes, y *Diálogos Europeos*, que propone un debate ciudadano sobre temas relacionados con la construcción europea.

Partaidetza Participación

Herritarren partaidetzan oinarritutako proiektua
Un proyecto sustentado en la participación ciudadana



Donostia 2016k bere DNA n inskribatuta dauka herritarren partaidetza. Hala erakusten du hainbat esperientzia arrakastatsuk.

DSS2016EU proiektuaren baitako partaidetzaren balioa persona guztien artean egungo eta biharko gizartea eraikitzeko borondatean oinarritzen da. Parte izan, parte sentitu, parte hartu... Hiriburutza honen kode genetikoko atalak dira. Partaidetza eta protagonismo aktibo eta konprometitua muinean ditu eta funtsezko osagaiak dira. Hala ere, parte-hartzea ez da soilik borondate kontua, parte hartu nahi izate soil. Benetako parte-hartzea sustatzea da kontua, deliberazioa, alternatibak proposatzea eta politika publikoak garatzea ere barne hartzen dituen.

Partaidetza sustatzeko bokazio honen lehen adibide garbia hautagaitza proiektuaren eraikuntza bera da; gaur egun hemen egotearen benetako arrazoia. DSS2016EU milaka herritarren, eragileren eta erakunderen arteko elkarriketetik jaio zen, eta horrek ahalbidetu zion Donostiari Europako Kultur Hiriburu izendapena jasotzea.

Beste adibide bat *Olatu talka* da, 2010etik herritarrek sortutako, proposatutako eta garatutako jardueraz osatzen den jaialdia. Era berean, ahalegin berezia egin da kulturaren esparruan herritarrek erabakiak har ditzaten: 150 donostiarr baino gehiagok *Energia-olatuen* baitan jasotako proposamenen hautaketan parte hartu dute. Programa horrek partikularrei zein irabazi asmorik gabeko elkarteei euren proiektuen garapenerako behar duten finantzazioa lortzeko aukera ematen die.

Era berean, programan ikuspegi inklusiboa lantzea, lurraldeko kolektibo ugariaren partaidetza sustatzea, edo herritarrekin bitartekaritza bultzatzea Donostia 2016ren oinarritzko ardatzak dira. Horien adibide dira Hazitegiak kaiaren bitartez garatutako ekintzak, izan dantza-konpainia baten entseguak adinekoen egoitza batera eraman eta sorkuntza-prozesua aberastea, izan artisten presentzia ikastetxeetan ohiko kontu bihurtzea.

Partaidetza-ekimen horien eta beste batzuen bitartez, DSS2016EUK kultur eredu berri bat sortzen lagundu nahi du: herritarrek gizartea modu aktiboan eraikitzen parte hartuko duten eredu berria.

PARTE HARTZEKO 2016 MODU

Nahi duen orok aurki dezake DSS2016EU n bere tokia. Proiektu honek askotariko espazio eta bideak eskaintzen ditu herritarrek maila eta fase guztietan parte har dezaten: sorkuntza eta garapenetik hasita, ebaluazio eta jarraipenera.

Ekitaldietara publiko bezala bertaratzear, *Energia-olatuen* ildorako proiektuak proposatzeaz, webgunearen bidez jarraipena egiteaz eta antolatuko ditugun lan-saioen parte izateaz gain, proiektuarekin bat egiteko beste hainbat modu ere izango da.

Adibidez, herritarrek boluntario bilakatu daitezke eta proiektuaren kide izan puntualki edo epealdi luze batez; DSS2016Euren enbaxadore ere izan daitezke beste herrialde batzuetan; eta zale ere egin daitezke, proiektuari babesa eman diezaioten.



San Sebastián 2016 lleva la participación ciudadana inscrita en su ADN. Existen numerosos ejemplos de experiencias exitosas que así lo demuestran.

El valor de la participación en el marco de este proyecto se basa en la voluntad de construir la sociedad del presente y el futuro entre todas las personas. Ser parte, sentirse parte, tomar parte... está inscrito en el código genético de la Capitalidad. La participación y el protagonismo activo y comprometido forman parte de su esencia, son elementos clave. No obstante, participar no depende solo de la voluntad, de querer participar. Hablamos de una participación real, relacionada con la deliberación, con la propuesta de alternativas y con el desarrollo de políticas públicas.

El primer ejemplo claro de esta vocación es la propia construcción del proyecto de candidatura, el verdadero motivo de haber llegado hasta aquí. DSS2016EU nació del diálogo entre un millar de personas, agentes e instituciones, lo que llevó a San Sebastián a alzarse con el título de Capital Europea de la Cultura.

Otro ejemplo es el *Olatu talka*, un festival nacido en 2010 cuyo programa se compone exclusivamente de iniciativas ideadas y llevadas a cabo por la ciudadanía. También se ha querido llevar la participación ciudadana al ámbito de la toma de decisiones en torno a un proyecto cultural, mediante la creación de un comité ciudadano donde más de 150 donostiarras participan en la selección de las propuestas que recibirán las subvenciones otorgadas en *Olas de energía*. Este mismo programa permite a la ciudadanía y a asociaciones sin ánimo de lucro obtener financiación que apoye el desarrollo de sus proyectos.

Asimismo, trabajar en clave inclusiva en la línea programática, fomentar la participación de diversos colectivos del territorio y la mediación con la sociedad civil, son ejes fundamentales para San Sebastián 2016. Algunos de los ejemplos son las acciones desarrolladas en el muelle *Hazitegiak*, como trasladar los ensayos de una compañía de danza a un centro de día y enriquecer así el proceso de creación; o hacer que la presencia de artistas en los centros escolares sea una imagen cotidiana.

Mediante estas y otras iniciativas, DSS2016EU quiere contribuir a generar un nuevo modelo de ciudadanía, compuesto por personas que participan activamente en la construcción de la sociedad.

2016 MANERAS DE PARTICIPAR

San Sebastián 2016 ha puesto a disposición de la ciudadanía toda una serie de vías de participación adicionales a las iniciativas recién mencionadas para garantizar que todo aquel que quiera encuentre su lugar en este proyecto de todas y todos.

Además de la evidente posibilidad de asistir a los eventos como público o de realizar un seguimiento de DSS2016EU mediante la web o las sesiones de trabajo que se organizarán en el Espacio 2016 y en los barrios, la ciudadanía podrá implicarse de una manera más activa en la creación, seguimiento y gestión del proyecto.

Podrá sumarse al proyecto también como voluntaria/o y adquirir, así, el compromiso de formar parte del proyecto bien en un periodo largo o bien de manera puntual; como embajador(a) de DSS2016EU en otros países; y como aficionada/o, mostrando su apoyo al proyecto.

Ardora

Erabakiak donostiarren esku Donostiarras que deciden

PROZESU PARTEHARTZAILEA

PROCESO PARTICIPATIVO



Gari Garaialde - Donostia - 2015

Donostia 2016 proiektuaren oinarrietako bat herritarren partaidetza da, eta Ardora da ezaugarri hori areagotu eta erabaki mailara eramateko tresna: donostiarrek erabakiko dute zein proposamenek jasoko dituzten *Energia-olatuak* ekimenaren laguntzak.

«Herritarren batzordeak aukeratzaren ditu *Energia-olatu*en babesa jasoko duten proiektuak»

Ardoraosatzen duten lagunak zozketa bidez aukeratu dituzte Donostian erroldatutako adin nagusiko biztanleen artean. Lantalde honetako kideak hiru hilabeteen behin aldatzen dira eta hilabeteen behin bilera egiten dute jasotako proposamenen artean aukeratu eta diru-laguntza jasoko dutenak erabakitzeko. Ardoran ehun eta berrogeita hamar herritar inguruk parte hartuko dute.

«Ausaz hautatutako 150 donostiar inguruk parte hartzen dute Ardoran»

Herritarren batzordea ausaz osatzeak ahalbidetu du arlo soziokulturalaren ez dabilen jendeak ere parte-hartzea bizi den hiriaren kultur kudeaketan, euren profila edozein dela. Zozketak herritar guztiei aukera berdinak ematen dizkie Ardoran parte hartzera gonbidatuak izateko; hau da, proiektuak balioetsi eta erabakiak hartzera gonbidatuak izateko. Ardora esperientzia berritzailea da kultur kudeaketaren arloan, herritarren partaidetza ez baita sarritan erabakietara iristen, eta bere asmoa da, legatuari begira, antzeko programak egiteko garaian erreferente gisa gelditzea.

Uno de los fundamentos del proyecto San Sebastián 2016 es la participación ciudadana, y con Ardora se ha querido llevar este espíritu al ámbito de la toma de decisiones: la ciudadanía donostiarra decide desde abril de 2015 qué propuestas deben recibir las ayudas otorgadas por *Olas de energía*.

«Un comité ciudadano decide qué proyectos apoyan las *Olas de energía*»

Las personas que componen Ardora han sido elegidas por sorteo entre los habitantes mayores de 18 años empadronados en San Sebastián. El grupo de trabajo, cuyos miembros van variando periódicamente, se reúne cada mes para estudiar las solicitudes y decidir qué proyectos recibirán la ayuda de las *Olas de energía*. Se prevé que más de un centenar de donostiarras formen parte de Ardora.

«Más de 150 donostiarras elegidos al azar participan en Ardora»

El papel que juega el azar a la hora de configurar el consejo ciudadano abre las puertas a que gente no tan cercana al ámbito sociocultural participe en la gestión cultural de la ciudad en la que reside, independientemente de su perfil. El sorteo da a toda la ciudadanía donostiarra una igualdad de oportunidades para ser invitado a participar en Ardora, es decir, para ser invitado a evaluar proyectos y tomar decisiones. Ardora es una experiencia innovadora en el campo de la gestión cultural, dados los pocos precedentes donde la participación ciudadana se prolonga al terreno de las decisiones, y es por ello que aspira a generar un legado y ser referente en la implementación de futuros programas similares.



Elkarrizketa Coro Lópezekin
Entrevista a Coro López

Coro López Ardoraren lehen taldeko kide izan da. Hiriburutzak donostiarrengan jarritako konfiantza izugarri eskertzen du, eta Ardoraren izaerak Donostia 2016az haratago jarraitzea espero du.

Nola hartu zenuen Ardoran parte hartzeko gonbidapena?
Udalak gutun bat bidali zidan eta, haren bidez, ekimena azaldu zidaten eta parte hartzera gonbidatu ninduten. Elkarre kontuetan sartuta nago, eta ideia gustatu zitzaidan. Oso garrantzitsua iruditu zitzaidan herritar gisa Hiriburutzaren makinerian parte hartzeko aukera izatea.

«Herritarrek erakundeek uste baino irekiagoak dira, eta ez uste bezain lehiakorrak»

Nolakoa da proposamenak aukeratzeko prozesua?
Proiektu guztiek gutxienezko irizpide formalak bete behar dituzte *Energia-olatuak* ekimenaren aintzat hartuko badira. Lehen hautaketa horretaz antolatzaileak arduratzen dira, eta geuk irizpide-betetze mailaren araberrako balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egiten dugu. Proposamenak eztabaidatzen ditugu eta adosten dugu zeintzuk jasoko duten laguntza. Eztabaida hori oso aberasgarria izan da: proiektuaren beraren inguruan genuen iritzi-aniztasuna ulertu eta errespetatzea, eta ondoren erabakia hartzea. Nabarmendu nahi dut taldeak ulertzen bazuen onartutako proiekturen batek ez zituela baldintzak betetzen, uko egitea erabakitzen genuela. Hala egin dugu, eta gure erabakia erabat errespetatu dute antolatzaileek, ados egon edo ez.

Nola bizi izan duzu Ardorako esperientzia?
Erantzukizuna da. Ez da erraza dirua zein proiekturi eman erabakitzea. Kanpotik oso erraza dirudi, baina ez da. Norbaiti dirua ematean, badakizu beste batek ez duela jasoko. Uste dut garrantzitsua dela herritarrek jakitea Hiriburutzarekin zerikusirik ez dutenen laguntza behar izan dela erabaki hauek hartzeko. Honelako esperientzia bat bizitzeak gogoetara bultzatzen zaitu. Komunikabideetan entzuten dudanean diru-laguntza bat eman dela pentsatzen dut ziurren ez dela erraza izan erabaki hori hartzea. Ez duzu arinkeriarekin kritikatzeko: ez duzu pentsatzen norbaiten laguna denik; aztertu dela eta erabaki hori hartzeko arrazioak egon badaudela pentsatzen duzu.

Uste duzu desberdintasunak daudela Ardoraren eta erakundeen erabakitzeko moduen artean?

Proiektuen hautaketa izugarri zaindu dugu. Ez dut uste erakundeetan gauza bera gertatzen denik. Desberdintasun nagusia da Ardoran beste ezereen gainetik herritarrek izan gaita, bakoitzaren iritzi politikoak ezagutu gabe. Administrazioan, aldiz, askoz gai zailagoak sartzen dira jokoan. Guk politika kanpoan utzi dugu. Ulertzen dut politika arloan horrek garrantzia duela, baina gure esperientziak erakusten du guk egin dugun bezala lan egin daitekeela, tirabirarik gabe.

Ardora osatzeko orduan ausa garrantzitsua izan da. Zein da osatutako taldearen inguruko balorazioa?
Benetan aberasgarria izan da. Pentsa, Hiriburutzaren aurkako pertsonak ere bazeuden! Ezinbestekoa iruditzen zait ados ez daudenek ere iritzia ematea. Azken finean, Donostian bizi bazara, Donostian egiten denak eragina dauka. Onuragarria da parte hartzea eta zure hiriaren alde ahal duzuna egitea. Taldea iritzi pertsonalen gainetik egon da eta hiri aberastea izan du helburu. Ahal den guztia egin dugu dena primeran ateratzeko.

Esperientziaren zer alderdi nabarmenduko zenuke?
Gogoko izan dut biztanleengan pentsatu izana Donostia 2016 sortzeko orduan. Herritarrek aspalditik udalarekin elkarlanean aritu dira auzoan erabakiak hartzeko, eta behin bakarrik gertatuko den gertaera honetan ere ezin zuen bestela izan. Antolatzaileentzako arriskua izan da, eta ezezagunari emandako konfiantza-botoa dela iruditu zait. Herritarrok instituzioetan askoz gehiago eman dezakegu: batzuek uste baino irekiagoak gara, eta ez hain lehiakorrak.

Zure ustez, zer eragin izan du eta izango du Ardorak?
Denbora dezente daramagu iritzi-foroak antolatzen, baina ezinbestekoa zen herritarren parte-hartzea haratago joatea. Pausoa emateko garaia Donostia 2016rekin bat heldu da, eta uste dut esperientzia honen ondorioak erakundeei jakinarazi behar dizkiegula. Norabide honetan jarraitu behar da. Ardora ez dadila bitxikeria bihurtu, tamalgarria izango bailitzateke.

Pozik zaude Ardoran parte hartu izanarekin?
Bai, oso. Uste dut Ardora aurrerapen nabarmena izan dela. Gainera, poz handia hartuko dut hurrengo hilabeteetan hautatutako proiektuak garatzen ikustean.

Coro López ha formato parte del primer turno de miembros de Ardora. Valora muy positivamente la confianza que la

Capitalidad ha depositado en las y los donostiarras, y confía en que el espíritu de Ardora sobreviva a San Sebastián 2016.

¿Cómo reaccionaste cuando te comunicaron que habías sido seleccionada para participar en Ardora?
Recibí una carta del Ayuntamiento en la que se explicaba la iniciativa y se me invitaba a participar. Estoy involucrada en los temas de asociaciones y me gustó la idea. Me pareció muy importante que se nos diera la oportunidad de participar como ciudadanos en el engranaje de la Capitalidad.

¿Cómo es el proceso de selección de propuestas?
Todos los proyectos tienen que cumplir un mínimo de criterios formales para ser considerados en *Olas de energía*. De esa criba previa se encarga la organización, y lo que hacemos nosotros es una valoración cuantitativa y cualitativa sobre el grado de cumplimiento de los criterios. Debattimos las propuestas y nos ponemos de acuerdo en las que serán subvencionadas. Lo interesante ha sido ese debate: entender y respetar la variedad de opiniones que teníamos de un proyecto, y tomar una decisión. Quiero subrayar que el grupo podía entender que alguno de los proyectos admitidos no cumplía los requisitos, y rechazarlo. Se ha hecho y el respeto a nuestra decisión ha sido absoluto, pudiendo la organización estar de acuerdo o no.

¿Cómo has vivido la experiencia de Ardora?
Es una responsabilidad. No es fácil decidir a qué proyecto le das dinero. Desde fuera parece muy sencillo, pero no lo es. Cuando le das dinero a alguien sabes que se lo estás dejando de dar a otros. Me parece importante que la ciudadanía sepa que se ha contado con personas de la ciudad ajenas a la Capitalidad para tomar estas decisiones. Vivir una experiencia como esta te hace reflexionar. Cuando oigo en los medios que se ha otorgado una ayuda pienso que no habrá sido fácil tomar la decisión. Ya no críticas tan a la ligera: no piensas que será amigo de alguien; piensas que habrá sido estudiado y que hay razones.

¿Consideras que hay diferencias entre la forma de decidir de Ardora y la de las instituciones?
Nosotros hemos cuidado mucho la elección de los proyectos. Tengo mis dudas de que desde las instituciones también sea así. La principal diferencia es que en Ardora hemos sido ante todo ciudadanos, ajenos a lo que cada uno piensa políticamente, mientras que en las administraciones entran otras cuestiones

mucho más peliagudas. Nosotros hemos aparcado la política fuera. Entiendo que en el ámbito político eso tiene un peso, pero nuestra experiencia no deja de demostrar que se puede trabajar como lo hemos hecho nosotros, y sin tensiones.

En la composición de Ardora el azar ha jugado un papel importante. ¿Cómo valoras el grupo resultante?
Ha sido muy enriquecedor, ihabía hasta personas en contra de la Capitalidad! Me parece muy importante que alguien que no está de acuerdo ponga su grano de arena. A fin de cuentas, si vives en San Sebastián, lo que se realiza en San Sebastián te repercute. Es positivo participar y hacer lo que puedas por tu ciudad. El grupo ha estado por encima de las opiniones personales y ha mirado por el enriquecimiento de la ciudad. Hemos hecho todo lo posible para que salga genial.

«La ciudadanía es más abierta y menos competitiva de lo que creen las instituciones»

¿Qué destacarías de la experiencia?
Me ha gustado que se haya pensado en los ciudadanos a la hora de crear San Sebastián 2016. Los ciudadanos llevan muchos años colaborando con el Ayuntamiento en decisiones a nivel de barrios y así tenía que ser también en este acontecimiento que va a pasar una vez. Me parece que es un riesgo que ha corrido la organización y un voto de confianza que se ha dado a algo desconocido. La ciudadanía puede dar mucho más de lo que a nivel institucional se cree: somos mucho más abiertos y menos competitivos.

¿Qué crees que ha supuesto y supondrá Ardora?
Llevamos mucho tiempo con los foros de opinión, pero era importante hacer más tangible la participación ciudadana. El momento de dar ese paso ha sido con San Sebastián 2016, y creo que las consecuencias de esta experiencia tienen que comunicarse a las instituciones. Hay que seguir avanzando en esta dirección y que Ardora no sea una anécdota, porque sería muy triste.

¿Estás satisfecha con tu paso por Ardora?
Sí, muy contenta. Pienso que Ardora ha sido un avance importante. Además, me hace muchísima ilusión ver cómo se implementan en los próximos meses los proyectos seleccionados.

Prozesua Proceso

Proiektu eraldatzaile baten ibilbide emankorra
El recorrido fecundo de un proyecto transformador



Donostia 2016 aspaldi samar hasi zen garatzen. Zehatzago esanda, proiektua 2008 hasieran hasi zen eraikitzen, hautagaitzaren aurkezpenarekin eta kultur proiektuaren zimenduak jartzeko balio izan zuten herritarren laborategi batzuekin. Aurretik egindako lan horri esker, Donostiak 2012ko ekainean izendapen ofiziala jaso zuen Europako Kultur Hiriburu gisa.

Une horretan hasi ziren kultur proiektu irabazlean islatu ziren proposamenak lurreratzen eta, aldi berean, ekimen batzuk abian jarri ziren, Donostia 2016 hiriarentzat eta lurraldearentzat izango zenaren lehen urrats gisara.

Zehazki, 2010eko apirilean, hautagaitza garaian, jarri zen martxan lehen ekimena, *Olatu talka*. Hasiera-hasieratik arrakasta izugarria izan zuen herritarren partaidetzari zegokionez, eta ordutik beste bost edizio izan ditu.

Baina herritarren jaialdi hau ez da Hiriburutzaren aurretiko prozesuan abian jarri zen ekimen bakarra. DSS2016EU beste proiektu garrantzitsuenetako batek, *Bake-itunak*, 2013an izan zuen lehen kapitulua, Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzearen bigarren mendeurreneko ospakizunekin bat etorritz, hain zuzen.

Lehenago hasitako beste proiektu batzuk ondorengo hauek dira, besteak beste: *Uda-gau bateko ametsak*, adibidez, Shakespearearen obra ezagunaren euskaratzea zabaldu zien herritarrei hainbat jardueraren bidez 2014ko udazkenean, edo *Antzerki-foruma: Eta hik zer?*, garai bertsuan hasi zena.

Kaiek ere ondo erakusten dute prozesua azken emaitza bezain garrantzitsua. Euren zenbait proiektu martxan egon dira azken urteotan eta Hiriburutzaren aurretik fruitu garrantzitsuak eman dituzte.

Adibide bat ematearren, *Bestelab* kaiaren barruan zenbait laborategi antolatu da, eta horietan herritarrek elkarrekin lan egiteko modu ezberdinak irudikatu dituzte. Beste adibide bat: *Hirikia* kaiaren baitan, duela urte batzuetatik lanean ari da *Hirikilabs*, teknologia partekatua eduki nagusi duen herritarren laborategia, alegia.

Azkenik, DSS2016EU proiektuak azken bost urteetan lurraldeko erakunde eta jaialdi askorekin harreman estua eraiki du. Dagoeneko finkatuta dauden konplizitate horiek guztiak orain *Elkarriketak* lan ildoaren barruan multzokatu dira, baina duela urte dezente sustraitu ziren, eta sinergien eta interes partekatuen bilaketan egindako lan gogorren emaitza dira.

Azken batean, hautagaitza-proiektuan erronka bat ezarri zen: DSS2016EUK ohiko ospakizun urtea baino zerbait gehiago izan behar zuela. Helmuga bidea bera zen. Argi zegoen erronka potoloa zela eta, espero bezala, ibilbidean zailtasunak eta oztopoak ugari izan dira; baina Donostia 2016k irmo eutsi dio hasieran egindako apustu hari.



San Sebastián 2016 se empezó a gestar hace largo tiempo. Para ser más precisos, la construcción del proyecto comenzó en 2008, con la presentación de la candidatura y los posteriores laboratorios ciudadanos en los que se cimentó el proyecto cultural que otorgó a San Sebastián la designación oficial como Capital Europea de la Cultura en junio de 2012.

En aquel momento comenzó el aterrizaje de las propuestas que se habían plasmado en el proyecto cultural ganador y, de forma paralela, determinadas iniciativas se pusieron en marcha como el primer paso de lo que San Sebastián 2016 supondría para la ciudad y el territorio.

El primer proyecto había echado a andar ya en abril de 2010. *Olatu talka*, que cosechó desde el principio un éxito abrumador de implicación ciudadana, ha contado con otras cinco ediciones desde entonces.

Pero el festival ciudadano no es el único ejemplo de iniciativas puestas en marcha en el proceso previo al año de Capitalidad. Otro de los proyectos estrella de DSS2016EU, *Tratado de paz*, desarrolló su primer capítulo en 2013, coincidiendo con la conmemoración del doscientos aniversario del asedio, incendio y reconstrucción de San Sebastián.

Más proyectos que han tenido un temprano comienzo de andadura son, por ejemplo, *Sueño de una noche de verano*, cuyo proceso de traducción se abrió al público mediante varias acciones llevadas a cabo en 2014, o *Teatro Fórum: ¿Y tú qué?*, cuya primera tanda de sesiones empezó en otoño de 2014.

Asimismo, los muelles son también muestra evidente de que el proceso es igual de importante que el resultado final. Algunas de estas metodologías de trabajo han estado en activo en los últimos años y han dado frutos mucho antes del año de Capitalidad.

En el marco de *Bestelab*, por ejemplo, se han realizado varios laboratorios en los que varios ciudadanos han imaginado modos diferentes de actuar en colectivo. El laboratorio ciudadano de tecnología colaborativa, *Hirikilabs*, también lleva años funcionando como parte del muelle *Hirikia*.

Por último, el proyecto DSS2016EU ha establecido en este último lustro conexiones con varias instituciones y festivales del territorio. Estas complicidades ya consolidadas que se agrupan ahora en la línea de trabajo *Conversaciones* echaron raíces hace años y son fruto de una ardua tarea de búsqueda de sinergias y puntos en común.

En definitiva, el reto que se lanzó en el proyecto de candidatura era conseguir que DSS2016EU fuera más allá del habitual año de celebraciones. El camino era el objetivo. El reto era difícil y, efectivamente, el recorrido no ha estado exento de dificultades y obstáculos; pero San Sebastián 2016 se ha mantenido firme en su apuesta.

Legatua Legado

Eta 2017an, zer?
Y en 2017, ¿qué?

2017ko urtaraila data garrantzitsua izango da. Izan ere, une horretan ernetzen hasiko baita Donostia 2016k ereindako hazia eta ikus ahal izango da hiria zertan eraldatu den; zein den Hiriburutzak hirian eta herritarrengan utzi duen arrastoa.

HERRITAR PARTEHARTZAILEAGO ETA AKTIBOAGOAK

Giza eskubideak gehiago errespetatuko dituzten herritar askeagoak eta humanistagoak sustatzea izan da DSS2016EU proiektuak jaiotzatik xede izan duen legatu nagusietako bat. Gizarte partehartzaileagoa, bere gatazkak kulturaren eta arteen bitartez konpontzen ikasteko gai izango dena; hori du helburu proiektuak.

Jomuga horrekin buruan, Donostia 2016k gizarte zibilaren ahalduntzea sustatzen duen zenbait ekimen antolatu du, herritarrak kultur kudeaketaren esparruan inplikatu nahi dituen Ardora batzordea, adibidez. Eta herritarrak aktiboagoak izan daitezen pentsatutako beste jarduera batzuen bidez ere bai. Hori da *Antzerki-foruma: Eta hik zer?* proiektuaren kasua, haren baitan herritarrei obraren garapenean ahotsa ematen baitzaie, «espektaktore» bihurtzeraino. Azken finean, xedea da kulturaren arloan parte hartzeko modu berriak bilatzea, eta herritarrak ezinbesteko rola jokatzeari horretan.

LAN EGITEKO BESTE MODU BAT

Donostia 2016k hiriari utzi nahi dion beste herentziatako bat lan egiteko modu berri bat da, zeinean diziplina eta mota askotako erakundeek, eragileek eta elkarteek, publiko zein pribatu, elkarrekin lan egingo duten eta bide berriak irekiko dituzten lankidetzan.

Helburu hau betetzeko estrategia nagusia DSS2016Euren kultur programaren parte diren ekimenen kudeaketa eta garapena deszentralizatzea da. Izan ere, azken batean, DSS2016Eurekin batera proiektu horiek sortzen diharduten eragileak berak baitira 2017tik aurrera biziraungo dutenak eta Hiriburutzaren espirituari eta balioei jarraipena eman ahal izango dietenak.

Horrez gain, denboran zehar irauteko asmoarekin DSS2016EUK hainbat ekarpen programatiko egin du lurraldean finkatuta dauden erakunde eta ekintzetan, *Elkarriketak* lan-ildoaren bidez.

Horri guztiari gaineratu behar zaio DSS2016Euren babespean garatutako hainbat proiektu, hala nola *Olatu Talka* edo *Musika parkean*, hiriaren kultur agendaren zati izatera pasa direla.

Donostia 2016k ez du aztarnarik utziko hiriaren azalean, baina bai bere ariman.

Enero de 2017 es una fecha clave. Será el momento en el que germinará la semilla sembrada por San Sebastián 2016 y se podrá empezar a ver en qué se ha transformado la ciudad; cuál es la huella que el año de Capitalidad ha dejado en la ciudadanía y en la propia ciudad.

UNA CIUDADANÍA MÁS PARTICIPATIVA Y ACTIVA

Uno de los legados clave que el proyecto DSS2016EU persigue desde su concepción es una ciudadanía más libre, humanista y respetuosa con los derechos humanos, una sociedad más participativa que aprende a resolver sus conflictos a través de la cultura y las artes.

Con este objetivo en mente, San Sebastián 2016 trabaja en varias iniciativas que fomentan el empoderamiento de la sociedad civil, como la comisión Ardora, que implica a la ciudadanía en el ámbito de la gestión cultural. También en otras acciones concebidas para que las y los ciudadanos sean más activos. Es el caso de las sesiones de *Teatro Fórum: ¿Y tú qué?*, que otorga al participante un papel esencial en la construcción de la obra y lo convierte en «espectador». Se trata de buscar nuevas formas de participar en la cultura, en las que la ciudadanía sea la pieza central.

UNA NUEVA MANERA DE TRABAJAR

Otra de los herencias que San Sebastián 2016 quiere legar a la ciudad es una forma distinta de trabajar que permita que instituciones, agentes y asociaciones, de diversas disciplinas y tipologías, públicas o privadas, aprendan a aunar esfuerzos y a abrir nuevos horizontes.

La descentralización en la gestión y el desarrollo de las actividades que forman parte del programa cultural de DSS2016EU es la estrategia principal en busca de esta meta. Y es que, al fin y al cabo, los agentes que colaboran con DSS2016EU en la generación de dichos proyectos son los que sobrevivirán a partir de 2017 y darán continuidad al espíritu y a los valores de la Capitalidad.

También surgen con el ánimo de perdurar en el tiempo las aportaciones programáticas que DSS2016EU ha realizado a las instituciones y eventos asentados del territorio mediante la línea de trabajo *Conversaciones*.

Todo ello se sumará a algunos proyectos impulsados bajo el abrigo de San Sebastián 2016, como *Olatu Talka* o *Musika parkean*, que ya han pasado a formar parte de la agenda cultural propia de la ciudad.

San Sebastián 2016 no dejará rastro en la piel de la ciudad, pero sí en su alma.



Wroclaw 2016

Kultura- eta hiri-trukea
Intercambio entre culturas y ciudades



Mohylek, Wroclaw, 2008



Polish National Tourist Office

Wroclaw Silesia Behereko voivoderriko hiriburua da. Poloniako hego-ekialdean kokatuta dago. Azoka-plaza famatua Europako zaharrenetakoa eta handienetakoa da. Ia seiehun eta berrogeita hamar mila biztanlek gozatzen dituzte mila urte baino gehiagoko historia duen hiriaren altxorrak. Kaleak 25 irlatan banatuta daude, eta hogeibai inguru zeharkatzen dituzten berrehun bat zubik lotzen dituzte irlak. Hiri poloniararren ezaugarriak zehazten dituzten gertaera desberdinen artean esanguratsuena, dudarik gabe, Bigarren Mundu Gerraren ondoren biztanleak birkokatu izana da. Ordura arte Alemaniako hiri zen Breslau Poloniako Wroclaw bihurtu zen. Harrezkero, duela hirurogeita hamar urte berreraikitze-prozesua hasi zuen, nola iragan istilutsuan zehar setiatutako eraikina hala biztanleen nortasuna. Herritar berri hauek, jatorri desberdina izanagatik, Oder ibaiaren ertzean finkatzeko prest zeuden.

Herritar horiek izan dira, hain zuzen ere, lau belaunalditan gizarte aniztuna eta irekia sortu dutenak, eta Wroclawekoa izateari gero eta esanahi zabalagoa eman dietenak. Europako Kultur Hiriburua gisa, bere helburua nortasun anitzean sakontzea da, Europarekiko irekitzetik eta kulturara eta ezagutzara sarrera garatzetik.

Programak Donostiari zenbait keinu egingo dizkio. Eduardo Chillidaren lanaren inguruko erakusketarekin hasiko da urtea; Poloniako milaka umek parte hartuko dute era berezian Donostiako egun europarrean; Wroclawek BASK jaialdia ospatuko du hiri poloniarrean euskal kultura hedatzeko; Donostia Poloniako literatura eta kultura murgilduko da Janus Korczak edo Witold Gombrowicz mailako autoreen bidez. Horrez gain, hainbat artista-truke izango da urte osoan zehar.

Wroclaw o Breslavia es la capital del voivodato de Baja Silesia situada al suroeste de Polonia. Su famosa plaza del mercado es una de las más antiguas y grandes de Europa, en la que sus cerca de seiscientos cincuenta mil habitantes disfrutan de los tesoros de una ciudad que tiene más de mil años de historia. Sus calles se distribuyen en 25 islas conectadas por cerca de doscientos puentes que cruzan una veintena de ríos. Entre los diversos acontecimientos que dibujan la idiosincrasia de la ciudad polaca, el suceso más significativo es sin duda la reubicación de su población tras el final de la Segunda Guerra Mundial. La entonces ciudad alemana Breslau se convirtió en la polaca Wroclaw; por lo tanto, hace poco más de setenta años inició un proceso de construcción, tanto de los edificios que fueron asediados durante su turbulento pasado, como de la identidad de sus habitantes, nuevos ciudadanos con distintos orígenes pero muy dispuestos a arraigarse a orillas del río Oder.

Esa misma ciudadanía, que cuenta con apenas cuatro generaciones, ha tejido una sociedad plural y abierta en la que ser de Wroclaw ha ido adquiriendo un significado cada vez más amplio. Su cometido como Capital Europea de la Cultura consiste en profundizar en su identidad múltiple desde la apertura a Europa y el desarrollo del acceso a la cultura y el conocimiento.

Su programa contará con diversos guiños a San Sebastián. El año abrirá con una exposición en torno a la obra de Eduardo Chillida; miles de niños participarán de una forma muy singular en el día de San Sebastián más europeo que tendrá la Bella Easo; Wroclaw celebrará el festival BASK para seguir dando a conocer la cultura vasca en la ciudad polaca; San Sebastián se adentrará en la literatura y cultura polacas a través de figuras como Janus Korczak o Witold Gombrowicz; y todo ello acompañado de diversos intercambios de artistas durante todo el año.

2016 Gunea Espacio 2016

Operazio-gunea
Centro de operaciones



2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren gaur egungo egoitza hiriko suhiltzaileen eraikin ohiean dago kokatuta. Donostiako udal arkitekto eta hiriko suhiltzaileen arduraduna zen Juan Rafael Aldayk diseinatu zuen, Kontxako barandaren egile ere izan zenak, hain zuzen. Easo kaleko 43an dagoen eraikin hau DSS2016EU lantaldearen lanerako gunea da eta herritarren informaziorako puntu bat ere hartzen du barne.

Paper soziokultural bat izan dezan prestatu da 2016 Gunea eta Hiriburutzaren zein hiriko beste eragile kultural eta sozialen jarduerak hartuko ditu 2016 urtearen bukaera bitartean. Ireki zenetik barne hartu ditu, besteak beste, Gaztea irrati katearen Pop-Track festa, Donostitruk azoka, hiriko jaialdi garrantzitsuenen ekitaldiak (dFeria eta Donostia Zinemaldiarenak, kasu) eta baita Kutxa Kultur Festibalak jaialdia hirigunera gerturatzeko antolatutako kontzertuetako batzuk ere. 2016 urtean gunea irekita egongo da herritar oro ingura dadin, eta tarteka-tarteka lekua egingo die hiriko zenbait jaialdiri, urteko zenbait data bereziri eta Donostia 2016ren balioak ikusaraziko dituzten hainbat jarduerari.

2016 Guneak helburu du Donostiako kultur zirkuituan tarte bat izatea. Hiriburutzaren arima eta filosofiaren isla, 2016 Gunea herritar guztiei irekitako tokia da.




La actual sede de la Capital Europea de la Cultura 2016 se sitúa en el antiguo edificio del cuerpo de bomberos, diseñado por quien fuera arquitecto municipal de San Sebastián y jefe de bomberos de la ciudad, Juan Rafael Alday, autor también de la barandilla de La Concha. Sito en el número 43 de la calle Easo, es el centro de operaciones del equipo de DSS2016EU y acoge asimismo un punto de información ciudadana.

Concebido para que desempeñe también un rol sociocultural, Espacio 2016 ha sido y seguirá siendo lugar de celebración hasta finales de 2016 tanto de actividades propias de la Capitalidad como de otros agentes culturales y sociales de la ciudad. Desde su apertura, ha acogido, entre otras, la fiesta Pop-Track de la emisora Gaztea, el mercado Donostitruk, programación de los grandes festivales de la ciudad como dFeria o el Festival de Cine de San Sebastián, hasta algunos de los conciertos que Kutxa Kultur Festibala ha programado para acercar el festival al centro de la ciudad. En 2016 el espacio estará abierto a la ciudadanía, y en determinadas ocasiones se vinculará a diversos festivales de la ciudad, a ciertas fechas señaladas y a distintas actividades que promuevan los valores de San Sebastián 2016.

El Espacio 2016 aspira a convertirse en un nodo más en el circuito cultural donostiarra y es, en reflejo del alma y la filosofía de la Capitalidad, un espacio abierto a toda la ciudadanía.

DSS2016EU zifratan

DSS2016EU en cifras



2008KO MARTXOA:
Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko hautagai gisa aurkezten da.

MARZO 2008:
Anuncio de la decisión del Ayuntamiento de San Sebastián de presentarse como ciudad candidata a Capital Europea de la Cultura 2016.

2010EKO UZTAILA:
Lehen hautagaitza-txostena.

JULIO 2010:
Entrega del primer dossier de candidatura.

2010EKO IRAILA:
Donostiaren aurre-hautaketa.

SEPTIEMBRE 2011:
Defensa del proyecto de candidatura y preselección de San Sebastián.

2011KO APIRILA:
Azken hautagaitza-txostena.

ABRIL 2011:
Entrega del documento final de candidatura.

2011KO EKAINA:
Donostia aukeratu zuten 2016ko Europako Kultur Hiriburu.

JUNIO 2011:
Defensa final del proyecto de candidatura y recomendación de San Sebastián como Capital Europea de la Cultura 2016.


2012KO MAIATZA:
Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu zuten ofizialki.

MAYO 2012:
Designación oficial de San Sebastián como Capital Europea de la Cultura 2016.


2012KO IRAILA:
Donostia 2016 Fundazioa eratu zen.

SEPTIEMBRE 2012:
Constitución de la Fundación San Sebastián 2016, Capital Europea de la Cultura 2016.

PATRONATUKIDEEN FINANTZAZIOAREN ETA FINANTZAZIO PROPIOAREN ARTEKO BANAKETA DISTRIBUCIÓN FINANCIACIÓN PATRONOS-PROPIA



AURREKONTUAREN BANAKETA URTEZ URTE. 2012-2018 EPEALDIA DISTRIBUCIÓN DE LOS PRESUPUESTOS POR AÑOS. PERIODO 2012-2018




Aurrekontua Presupuesto 2012-2018


DIRU-SARRERAK / BALIABIDEAK INGRESOS / RECURSOS

PATRONATUKIDEEN FINANTZAZIOA FINANCIACIÓN PATRONOS		FINANTZAZIO PROPIOA FINANCIACIÓN PROPIA	
DONOSTIAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN	12.776.446 €	EUROPAR BATASUNA (MELINA MERCOURI SARIA) UNIÓN EUROPEA (PREMIO MELINA MERCOURI)	1.500.000 €
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA	12.749.333 €	BABESLEAK PATROCINIOS	4.000.000 €
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	12.240.665 €	SALMENTAK VENTAS	413.168 €
KULTURA MINISTE- RIOA MINISTERIO DE CULTURA	4.550.000 €	DIRU-LAGUNTZAK SUBVENCIONES	542.400 €
GUZTIRA SUBTOTAL	42.316.444 €	GUZTIRA SUBTOTAL	6.455.568 €
GUZTIRA / TOTAL		48.772.012 €	


DIRU-SARREREN BANAKETA DISTRIBUCIÓN DE LOS INGRESOS



GASTUEN BANAKETA KONTU-SAIL NAGUSIEN ARABERA. 2015-2016 DISTRIBUCIÓN DE LOS GASTOS SEGÚN PARTIDAS PRINCIPALES. 2015-2016



KULTUR PROGRAMAKO GASTUEN BANAKETA. 2015-2016 DISTRIBUCIÓN DE LOS GASTOS DEL PROGRAMA CULTURAL.2015-2016



Babesleak Patrocinadores

BABESLE OROKORRAK PATROCINADORES GLOBALES



BABESLE BEREZIAK PATROCINADORES ESPECIALES



PROIEKTU BABESLEAK PATROCINADORES DE PROYECTO



KOMUNIKABIDE OFIZIALAK MEDIA PARTNERS



LAGUNTZAILE OROKORRAK COLABORADORES GLOBALES



PROIEKTU LAGUNTZAILEAK COLABORADORES DE PROYECTO



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK CON EL APOYO DE



PATRONATUKIDEAK PATRONOS



BIENVENIDOS
WELCOME
BIENVENUE

Ongi etorri

BIZI ZURE
VIVE TU
LIVE YOUR
VIVEZ VOTRE

2016

Donostia / San Sebastián



Nola iritsi / Nola mugitu

Cómo llegar / Cómo moverse

Getting here / Moving around

Comment arriver / Comment se déplacer



Agenda / Planak / Zer egin

Agenda / Planes / Qué hacer

Events guide / Plans / What to do

Agenda / Activités / Que faire



Informazio praktikoa

Información práctica

Practical information

Infos pratiques



Sare sozialak / Albisteak

Redes sociales / Noticias

Social media / News

Réseaux sociaux / Nouvelles

**SARTU
ENTRA
ENTER
ENTRER**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

www.donostia.eus/bizi2016



Urte osoan zehar bizi dugu kultura



Musika, artea, bertsogintza, antzerkia, zinea...
Kutxa Fundazioak urtean zehar antolatzen diren jarduera eta ekitaldi ugari bultzatzen ditu.

Era guztietako kultur ekimenak bideratzea gure gizarte-konpromisoaren parte ere badelako.

Música, arte, bertsolarismo, teatro, cine...
Fundación Kutxa impulsa numerosas actividades e iniciativas a lo largo del año.

Una manifestación más de nuestro compromiso con la sociedad.

